

114. ALDIZKARIA - 1997ko irailaren 22a

II. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

B A Z T A N

Udalaren ordenantzak

ORDENANTZA FISKAL OROKORRA

Oinarria

Ordenantza hau Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeak (1995eko martxoaren 20ko 36. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALa.) xedatzen duenari jarraikiz ezarri da.

I. KAPITULUA

Oinarri orokorrak

1. artikulua. Honako ordenantza fiskal orokor honen xedea da udalerrri honetako zerga araubidea osatzen duten ordainarazpen guztiendako arauak eta oinarri orokorrak finkatzea.

Ordenantza honen arauak ordenantza partikularren osagarritzat hartuko dira, azken hauek berariaz arautzen ez duten guztian.

2. art. Tokian tokiko ordenantza fiskalek eta honako honek ere agintzen duten bezala, zergak ordaintzeko obligazioa guztiena da, eta zerga-eskubide eta betebeharrak izan ditzaketen pertsona fisiko eta juridiko guztiak edo nortasun juridikorik gabeko sujetuak hartzen ditu bere esparruan, beti ere, berdintasun eta ahalmen ekonomikoaren oinarriak aintzat hartuz (2/1995 Foru Legearen 56.a artikulua).

3. art. Baztango Udalak onetsitako ordenantza fiskalek bere udal mugape osoan izanen dute indarra, eta ezin izanen da kargarik ezarri entitate zerga-ordainarazlearen lurraldetik kanpo egindako negozio, egintza edo gertaerengatik (2/1995 Foru Legearen 56.b artikulua).

4. art. Udal honek ordainarazten dituen toki-tributuen sujetu pasiboek behar bezalako frogabidez hornituriko kontsultak egiten ahal dizkiote Udalari kasu bakoitzean dagokien tributu arloko erregimen, sailkapen edo kalifikazioari buruz.

Erantzunak informazio soilaren balioa izanen du eta ez egintza administratiboarena, Administrazioari loturarik ezarriko ez diolarik.

Hala ere, bere kontsulta egin ondoren eskudun organoaren erantzunak dioenaren arabera bere tributu arloko betebeharrak betetzen dituen sujetu pasiboak ez du erantzukizunik izanen, baldin eta 2/1995 Foru Legearen 63.3. artikulua adierazten dituen baldintzak betetzen badira.

Interesatuak ezin izanen dute inolako errekurtsorik aurkeztu kontsulta baten erantzunaren aurka, nahiz eta gero, erantzun horretan oinarritutako egintza administratiboaren aurka egitea zilegi izanen duten (2/1995 Foru Legearen 63.4 artikulua).

5. art. Udal honek indarrean diren ordenantza fiskalen kopiak emanen dizkie eskatzen dituztenei.

Ordenantzek beraietan ezarritako epean izanen dute indarra. Eperik ezartzen ez bada mugagabeko iraupena dutela ulertuko da (2/1995 Foru Legearen 14. artikulua).

II. KAPITULUA

Zerga erlazioaren elementuak

Zergagaia

6. art. Zergagaia izaera juridikoa edo ekonomikoa duen betebeharra da, ordainarazpen bakoitza finkatzeko behar den ordenantzan zehaztutakoa, eta hura gauzatzeak zerga ordaintzeko obligazioa sorrarazten du.

Ordenantza fiskal partikular bakoitzak zergagaia zehaztuko du eta horretarako, zerga ordaindu beharra zer baldintzatan sortzen den aipatuko.

7. art. Ez da analogia onartuko zergagaiaren edo salbuespen edo hobarien esparrua bere muga hertsietatik harata hedatzeko (2/1995 Foru Legearen 65. artikulua).

8. art. Sujetu pasiboa.

a) Sujetu pasiboa pertsona natural edo juridikoa da, zeina, ordainarazpen bakoitzari buruzko ordenantza partikularrari jarraikiz, zergak ordaintzera beharturik baitago, zergadunaren nahiz haren ordezkari gisa.

Zergaduna pertsona natural edo juridikoa da, zeini ordainarazpen bakoitzaren ordenantzak zergagaiari darion tributu karga ezartzen baitio, bakarka edo bertze batzuekin batera (2/1995 Foru Legean xedatutakoa aplikatzeagatik).

Zergadunaren ordezkoa sujetu pasiboa da, zeina, ordenantzak hala beharturik eta haren orde, behartuta baitago zerga betebeharren prestazio material eta formalak betetzera.

b) Sujetu pasibotzat hartuko dira, halaber, jaraunspen banatugabeak, ondasun komunitateak eta gainerako entitateak, zeinek, nortasun juridikorik ez izanik ere, unitate ekonomiko bat edo ezarpena jar dakioken berezitako ondare bat osatzen baitute.

9. art. Zerga erlazioaren aldaezintasuna.

Sujetu pasiboaren eta zerga betebeharraren gainerako elementuak ez dira partikularren egintza edo hitzarmenen eraginpean aldatzen ahal.

Egintza eta hitzarmen horiek ez dute udal administrazioan eraginik izanen, berekin dakartzaten ondorio juridiko-pribatuak galarazi gabe.

10. art. Zerga-oinarria.

Zerga-oinarritzat hartuko da:

a) Zergagaia zerga-modulutzat kalifikatzea, tributu zorra kopuru finkotan mugatzen denean.

b) Zergagaiaren kopuru, pisu edo neurri unitateen multzoa. Unitate horien gainean ezarriko da tarifa egokia, tributu zorra zehaztera iristeko.

c) Zergagaiaren balorazioa diru unitatetan, udal administrazioak kontutan hartutakoa. Horri buruz, eta kasu bada, indarra duen arautegiari jarraikiz behar diren murriztapenak egin ondoren, tasa egokia aplikatuko zaio tributu zorra zehaztera iristeko.

Zenbait ordainarazpenen kasuetan errolda, matrikula edo erregistroa eginen da, beren izaera dela eta zergagaiak iraun egiten duenean.

11. art. Likidazio oinarria.

Likidazio oinarritzat hartzen da zerga-oinarrian ordainarazpen bakoitza arautzen duen lege edo ordenantzan ezarritako murrizketak, halakorik bada, egin ondoren geratzen den emaitza.

12. art. Karga-tasa.

Karga-tasatzat hartuko dira izaeraz proportzionalak edo progresiboak izan daitezkeen eta likidazio oinarriari kuota zehazteko aplikatzen zaizkionak.

13. art. Kuotaren zehaztapena.

Kuota honela zehaztuko da:

- a) Ordenantzan zerga-modulu gisa seinalatutako kopuru finkoaren arabera.
- b) Ordenantza partikularretan ezarritako tarifak karga-oinarriari aplikatuz.
- c) Zerga-oinarriaren balioari dagokion karga-tasa proportzional edo progresiboa aplikatuz.
- d) Oro har, kontribuzio berezietan, ordaintzera beharturik dauden guztientzat, interes partikularri egozten zaizkion obra eta instalazioen kostuaren ehunekoaren arabera, kuota osoa sujetu pasiboen artean nork berea ordaintzeko banatuko da, dagokion ordenantzan finkatutako moduluei jarraikiz.

14. art. Salbuespenak eta hobariak.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean eta Nafarroako Foru Parlamentuak onetsi edo onesten dituen gainerako arau aplikagarrietan xedatzen denari lotuko zaio.

III. KAPITULUA

Tributu zorra

15. art. Tributu zorra sujetu pasiboak udal administrazioari zor dion diru kopurua da. Kopuru honetan tributu kuota sartzen da eta, hala behar denean, ondoko kontzeptuak gehitzen zaizkio:

- a) Oinarrien edo kuoten gainean legez galdatzen ahal diren errearguak.
- b) Berandutzagatiko korritua, legean ezarria.
- c) Gerorapen edo luzapen errearguak.
- d) Premiamenduko erreargua.
- e) Zerga izaera duten diru-zehapenak.

Tributu zorra ordaintzeko erantzukizuna

16. art. 1. Legeak tributu zorraren erantzule deklaratzeko ahal ditu, sujetu pasibo edo zordun nagusiekin batera, bertze pertsona batzuk solidario edo subsidiarioki.

2. Kontrakorik agintzen duen legezko arau espresik izan ezean, erantzukizuna beti subsidiarioa izanen da.

3. Erantzukizuna tributu zor osoraino iristen da, zehapenak salbuetsirik.

Premiamenduko errekgua dirusarrera egiteko borondatezko epea bete eta ordaindu ez duenean bakarrik eskatzen ahal zaio erantzuleari.

17. art. Beti ere, tributu zorraren ordainketara behartzeko administrazio egintza erantzuleei iragan ahal izateko beharrezkoa da administrazio egintza bat zeinean, interesatuari entzun ondoren, erantzukizuna deklaratu eta haren norainokoa zein den zehaztuko den.

Egintza hori jakinaraziko zaie, likidazioaren funtsezko osagaiak adieraziz, une horrextatik zordun nagusiaren eskubide guztien jabe eginen direlarik.

18. art. Administrazio egintza erantzule subsidiarioei iragan ahal izateko nahitaezkoa da alde zurretik zordun nagusiaren eta gainerako erantzule solidarioen ordainezintasuna deklaratzeko, aitortzen horren aurretik bidezko diren arreta neurriak hartzea galarazi gabe.

19. art. Zor baten erantzule solidario edo subsidiarioak bi edo gehiago baldin badira, zorra oso- oso horietako edonori eskatzen ahal zaio.

Tributu zorraren iraungipena

20. art. Tributu zorra iraungiko da:

- a) Ordaindu edo bete delako.
- b) Preskripzio bidez.
- c) Egiaztatutako ordainezintasunagatik.
- d) Konpentsazio bidez.

21. art. Tributu zorren ordainketa Ordenantza honen 54tik 57ra bitarteko artikuluek, biak barne, arautzen dutenaren arabera eginen da.

22. art. Bortz urteren buruan ondoko eskubide eta egintzek preskribatuko dute:

a) Sujetu pasiboen aldekoak:

-Tributu zorra likidazioaren bidez zehazteko udal administrazioak duen eskubidea, eskubide hori sortu zen egunetik kontatzen hasita.

-Likidatutako tributu zorrak ordain daitezzen galdatzeko ekintza, borondatezko ordainketarako epea akitzen den egunetik kontatzen hasita.

-Tributu zehapenak ezartzeko ekintza, arau-hauste bakoitza egin zen egunetik kontatzen hasita.

b) Administrazioaren alde, jaso behar ez ziren dirusarrerak itzultzeko eskubidea, sarrera egin zen egunetik kontatzen hasita.

23. art. Aurreko artikulua a) idaztiak aipatzen dituen preskripzio epeak eten egiten dira:

-Sujetu pasiboa formalki jakinaren gainean izanik, zergagai bakoitzagatik zorpidetutako ordainarazpenaren aitorpena, arautzea, ikuskapena, segurtasuna, egiaztapena, likidazioa eta dirubilketa erdiesteko egindako edozein egintza administratiboren eraginez.

-Edozein erreklamazio edo helegite paratzen bada; udal administrazioak ezarritako epearen barnean ez badu ebazpenik ematen, udal administrazioari berari egozten ahal zaion erruz, preskripzio aldia aipatu epe hori iragaten den egunetik aurrera hasiko da kontatzen.

-Tributu zorra ordaindu edo likidatzeko sujetu pasiboak egiten duen edozein jarduketagatik.

Aurreko artikuluko b) idaztiaren kasuan, preskripzio epea eten egiten da dirusarrera ez-zilegia itzultzea nahi duen sujetu pasiboaren edozein egintza fedemaileraren bidez, edo udal administrazioaren edozein egintza dela medio horrelakorik badela aitortzeko.

24. art. Preskripzioa ofizioz aplikatuko da, sujetu pasiboak eskatu edo salbuetsi beharrik gabe.

25. art. Sujetu pasiboaren eta gainerako erantzuleen ordainezintasun egiaztatua dela eta, kitatu ezin izan diren tributu zorrak behin-behinekoz iraungiak deklaratu dira, preskripzio epearen barnean birgaitzen ez diren bitartean. Epe hori akiturik zorra birgaitzen ez bada, behin betiko iraungirik geratuko da.

IV. KAPITULUA

Tributuen arloko arau-haustek eta haien kontrako zehapenak

Tributuen arloko arau-haustek

26. art. Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/95 Foru Legearen 93. artikuluari jarraikiz, tributuen arloko arau-haustek lege horretan berean eta gainerako arau aplikagarrietan tipifikatzen eta zehatzen diren ekintza eta omisioak dira.

27 art. Arau-hausleak izanen dira legeetan arau-hauste gisa tipifikaturik dauden ekintza edo omisioak egiten dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak, eta bereziki ondoko hauek:

a) Tributuen sujetu pasiboak, zergadun ala ordezekoak izan.

b) Jarduteko gaitasunik ez duten sujetu pasiboen legezko ordezkaria.

c) Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legearen 62. artikuluan ezarritakoaren arabera, Administrazioari argibideak edo laguntza emateko obligazioa duten pertsona fisiko edo juridikoak.

28. art. Legeetan arau-hauste gisa tipifikaturik dauden ekintza edo omisioetatik erantzukizunik ekarriko ez dutenak 2/1995 Foru Legearen 93. artikuluan aipatutakoak dira.

29. art. Arau-hausteak soilak edo larriak izan daitezke, egintza edo omisioak, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 94. artikuluan kontzeptu batean edo bertzean sartzen diren kontuan hartuz.

Zehapenak

30. art. Arau-hausteak isun finko edo proportzionalaren bidez zehatuko dira dirutan. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 95. artikuluan xedatutakoaren arabera.

31. art. 1. Arau-hauste soil bakoitza 1.000 pezetatik 150.000 pezeta bitarteko isunarekin zehatuko da.

2. Eskumenak erabiliz egitekoak ikuskatzailtza- jarduketei zailtasunak edo aitzakiak jarri edo uko egiteagatik, 50.000 pezetatik 1.000.000 pezeta bitarteko isuna jarriko da.

3. Tributu arloko arau-hauste larriak kuotaren zenbatekoaren %50etik %150era bitarteko isun proportzionalaren bidez zehatuko dira dirutan, 2/1995 Foru Legearen 97.3 artikuluan aipatzen den murrizketa deusetan galarazi gabe.

4. Berandutza-korrituak galdatzen ahalko dira, borondatez ordaintzeko epea bukatzen denetik tributu egoera erregularizatzen duen likidazioa egiten den egunera arte igarotako denboragatik.

32. art. Zehapen prozedura.

Zehapenak tributuen likidazio behin-behineko edo behin betikoak bideratzen dituzten egintza administratiboak diktatzen dituzten organoek erabaki eta ezarriko dituzte, beti ere interesatuari entzun eta alde zuzenetik behar den espedienteari hasiera eman ondoren.

33. art. Tributu arloko arau-hausteetatik sortutako erantzukizuna.

1. Arau-hausteeek ekarritako eratzunkizuna ordainketa egin edo zehapena bete delako galtzen da, edo preskripzio bidez.

2. Arau-hausleak hiltzen direnean, haien oinordeko edo legatu-hartzaileek jasoko dituzte tributu arloko betebeharrak, jaraunspena hartzeko legeria zibilak ezartzen duena deusetan galarazi gabe. Zehapenak ezin dira sekula transmititu.

3. Sozietate edo entitate desegin eta likidatuaren kasuan, ordaindu gabeko tributu horiek kapitalean kide edo partaide direnei transmitituko zaizkie, eta haiek solidarioki erantzunen dute, bakoitzak esleitu zaion likidazio-kuotaren balioaren mugaraino.

V. KAPITULUA

Kudeaketa arauak

34. art. Tributuen kudeaketari hasiera emanen zaio:

a) Sujetu pasiboaren aitortzen edo ekimenaren bidez.

b) Ofizioz.

c) Toki entitateen organo administratiboaren ikerketaren bidez.

Tributu aitortpena

35. art. a) Tributu aitortpentzat hartuko da zergagai baten inguruabarrak edo osagaiak agertu direla adierazi edo aitortzen duen agiri oro, bai halaber zergagai bat duen edo osatzen duen agiriaren aurkezpen hutsa ere.

b) Ez da inolaz ere eskatuko zerga aitortpenak zinpekoak izatea.

c) Aurkeztean interesatuei emanen zaie horren egiaztagiria, eta horretarako aitortpenaren kopia ere erabiltzen ahalko da.

d) Frogagiri bat aurkeztean interesatuek aurkezten ahalko dute, horrekin batera, kopia sinplea edo fotokopia, udal administrazioak, erkatu ondotik, jatorrizkoa itzul dezan, prozedura behin betikoz ebatzi aurretik agiria itzuli behar ez dela erabakitzen ez bada, agiri pribatua izateagatik edo legezko bertze arrazoiren batengatik.

36. art. Aitortpena aurkeztu beharko da ordenantza partikular bakoitzean ezarritako epeen barnean, eta orokorrean, zergagaia ematen den unetik hasita ondoko hogeita hamar egun balioduneko epearen barnean. Epearen barnean ez aurkeztea arau-hauste soiltzat hartuko da eta horren arabera zehatuko.

37. art. Aitorpena toki entitate honetan aurkezteak ez du zergaren jatorria onartu edo aitortzen denik erran nahi.

Udal honek aitorpenak eska ditzake eta hauek gehitzea ere bai, eta orobat nabari diren okerrak zuzentzea, tributuen likidaziorako eta egiaztapenerako beharrezko den neurrian.

Aurreko lerroaldiak aipatzen dituen betebeharrak ez egitea arau-hauste soiltzat hartuko da eta horren arabera zehatuko.

38. art. Epeak.

1. Ordenantza partikularretan izapide bakoitza egiteko bete beharreko epeak zein izanen diren adieraziko da. Ordenantza horiek ez badituzte epeak finkatzen, oro har ulertuko da ez dela sei hilabete baino gehiago izanen administrazio prozedura hasten denetik prozedura amaitzen duen ebazpenaren eguna arteko denbora; beti ere hori galarazten duten behar bezala justifikatutako aparteko arrazoiak ez badira behintzat. Epe hori bi urtekoa izanen da ikuskapena denean.

2. Toki entitate honek epeak betetzen ez baditu ere, horrek ez du erran nahi administrazio ekintza iraungi egiten denik, baina, hala ere, interesatuei erreklamazioa aurkezteko baimena emanen die.

3. Izapidaketaren akatsen kontrako kexako erreklamazioak noiznahi egiten ahal dira, eta bereziki, prozedura geraraztea, jarritako epeak haustea edo arazoa behin betikoz ebatzi aitzin konpon daitezkeen izapideak ez egitea dakartzatenak. Erreklamazioa ontzat hartzen bada, horretarako arrazoirik izanez gero, berarekin erantzukizuna duen funtzionarioaren kontrako diziiplina espedientea irekitzea ekarriko du.

Ikerketa eta ikuskapena

39. art. Toki entitate honek ikertuko ditu zergagaia osatzen edo baldintzatzen dituzten gertakizun, egintza, egoera, jarduera, ustiapen eta gainerako inguruabarrak, eta egiaztatuko karga-oinarriaren balorazioa.

40. art. Ikerketa egiteko sujetu pasiboaren kontabilitate nagusiaren edo laguntzailearen agiriak, liburuak, fitxategiak, kontu-agiriak, frogagiriak eta oharpenak aztertuko dira; era berean, ondasunen, elementuen, ustiapenen eta tributua zehazteko beharrezko den berte edozein informazio aurrekariren ikuskapena egingen da.

41. art. Sujetu pasiboek kontabilitate liburuak, erregistroak eta kasu bakoitzean eskatzen diren berte dokumentuak eraman eta kontserbatzeko obligazioa dute, bai eta ikuskapen lanetan erraztasunak emateko ere, Administrazioari zergagaiarekin zerikusirik duten datu, txosten eta aurrekariak edo frogagiriak eskuratuz.

42. art. Ikuskapenak sujetu pasiboendako eragin ekonomikorik baldin badakar, diligenza, jakinarazpen eta aurretiko edo behin betiko akten bidez dokumentatuko dira.

43. art. Salaketa.

1. Toki entitateen ikerketa salaketa bidez hasten ahal da. Salaketa erabiltzea Administrazioa laguntzeko obligaziotik aparte dago, 2/1995 Foru Legearen 62. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2. Salatzailea ez da interesatutzat hartuko salaketaren ondorioz hasten den ikerketan, eta salatzailea den aldetik ez du eskubiderik izanen helegite edo erreklamaziorik jartzeko.

3. Nabarmenki funtsik gabeak diren salaketak bertzelako tramiterik gabe artxibatzen ahal dira.

Tributu likidazioak

44. art. 1. Zerga-oinarriak zehaztu ondoan, kudeaketak jarraituko du likidazioa eginez tributu zorra finkatzeko. Likidazioak behin-behinekoak edo behin betikoak izanen dira.

2. Behin betikoak honako hauek izanen dira:

-Zergagaiaren ikerketa administratiboa egin ondoan eta karga oinarria egiaztatutakoan egindakoak, tartean behin-behineko likidaziorik izan ala ez.

-Preskripzio epearen barnean egiaztatu ez direnak.

3. Aurreko atalean adierazitako kasuetatik at, likidazioak behin-behinekoak izanen dira, kontuaren gainekoak, osagarriak, bermeak, partzialak edo osokoak badira ere.

45. art. a) Likidazioak egiterakoan toki entitate honek egiaztatuko ditu tributu aitopenetan adierazitako egintza, elementu eta balorazio guztiak.

b) Aitorpenen emaitzaren gaineko tributu oinarria haunditzen bada sujetu pasiboari jakinarazi behar zaio.

46. art. 1. Likidazioak sujetu pasiboari jakinaraziko zaizkie, hauek adieraziz:

a) Haien funtsezko elementuak.

b) Erabil daitezkeen inpugnazio bideak, hauek jartzeko epeak, bai eta zein erakundetan jarri ere adieraziz.

c) Tributu zorra non, noiz eta nola ordaindu behar den.

2. Jakinarazpen akastunek eragina izanen dute sujetu pasiboak haren berri baduela espreski adierazten, dagokion helegitea jartzen edo tributu zorra ordaintzen duenetik hasita.

3. Sujetu pasiboari zuzenean emandako jakinarazpenek sei hilabeteren buruan izanen dute eragina, baldin eta egintzaren testu osoa izanik, bertze edozein baldintza aipatu ez badute, Administrazioak akatsa zuzen dezan eskatzeko epe horretan behar bezalako protesta egin bada salbu.

Zergadunen erroldak

47. art. Ordenantza partikularrean berean zehaztutako kasuetan, udal administrazioak, interesatuen aitorpenak ikusirik, ezagutzen dituen datuen arabera eta, orobat, administrazio ikuskapenak emandakoak gehituz, zergadunen erroldak prestatzeari ekinen dio. Zergadunen errolda horrela prestatu eta gero, erregistro iraunkor eta publikotzat hartuko da, eta Udalak paratu nahi duen edonolako prozedura bidez, mekanikoa ere barne dela, funtzionatuko du.

48. art. 1. Zergadunen errolda eratu ondoan, bertan gertatzen diren alta, baja eta aldaketa guztiak ontzat eman beharko dira erreklama daitekeen administrazio egintzaren bidez, eta legeari jarraikiz sujetu pasiboari horien berri emanen zaie.

2. Erroldan zernahi alta, baja edo gorabeherarik sor dezakeen aldaketaren berri eman beharko dio zergadunak udal administrazioari, hura gertatu eta hogeita hamar egun baliioduneko epean.

49. art. Zergadunen erroldak dokumentu fiskaltzat hartuko dira, zeina aipatu beharko baita kobratzeko zerrenda, ordainagiri eta bertze dokumentuetan, dagokion ordainarazpena eskuratu ahal izateko.

VI. KAPITULUA

Dirubilketa

Oinarri orokorrak

50. art. Dirubilketaren kudeaketa, toki entitatearen ogasunaren hartzekoa osatzen duten kreditu eta eskubideak burutzera bideratutako eginkizun administratiboa betetzea da.

51. art. 1. Dirubilketa egin daiteke:

-Borondatezko aldian.

-Derrigorrezko aldian.

2. Borondatezko aldian ordaintzera behartuta daudenek, horretarako adierazitako epeen barrenean kitatuko dituzte beren zorrak. Derrigorrezko aldian, indarra duen legeriari jarraikiz dirubilketa nahitaez egingen da premiamendu bidez, zerga ordaindu behar duenak borondatezko aldian bere obligazioa betetzen ez badu.

52. art. Udalaren baliabideen bilketa zuzenean egingen da udal diruzaintzaren kontuhartzaileak zerbitzuen fiskalizazioa betetzen duela.

53. art. Zorren sailkapena, dirubilketari doakionean.

1. Udal agintariak eginiko likidazioen ondorioz sortutako tributu zorrak, dirubilketari doakionean, honela sailkatuko dira: jakinarazi beharrekoak, jakinarazpenik gabekoak eta norberak likidatutakoak.

2. Jakinarazi beharrekoetan ezinbertzekoa da jakinarazpena igortzea, sujetu pasiboak tributu zorraren berri izan dezan. Hortaz, legearen arabera jakinarazpenik gabe, zorra ezin izanen da eskatu.

3. Jakinarazpenik gabeko zorrak dira banakako jakinarazpenik behar ez dutenak, zuzenean sujetu pasiboek ezagututako zergadun erroldetatik etortzeagatik, tributu zorra aldiro aldatzen bada ere, dagokion ordenantzan aurretiaz zehaztutako errekaru edo tasa gehikuntzen aplikazioagatik.

4. Norberak likidatutakoetan sujetu pasiboak, efektu tinbratuen bidez edo aitortpen-likidazioa egitean, aldi berean tributu zorraren ordainketa egiten du.

54. art. Ordainketa egiteko tokia.

Toki entitate honen aldeko zorrak Udalbatzaren kutxan ordainduko dira, edo banku edo aurrezki kutxetan horretarako irekitako kontuetan, horien titulartasuna badu.

55. art. Ordainketa epeak.

Tributu zorrak honela ordainduko dira:

a) Jakinarazi beharrekoak, jakinarazpenetik hasita hogeita hamar egun balioduneko epearen barnean.

b) Ordainagiri bitartez aldian aldian ordaintzen direla-eta banakako jakinarazpenik behar ez duten tributu zorrak, aurreko letran ezarritako epe berdinean, ordaindu behar diren hiruhileko naturaleko lehen egunetik hasita.

c) Sujetu pasiboak berak zuzenean likidatzen dituen zorrak aitortpena aurkeztean ordainduko dira. Aitortpenak aurkezteko egunak edo epeak tributu bakoitzaren ordenantza

arau-emaileetan zehaztuko dira eta, halakorik ezean, zergaia gauzatzen den egunetik kontatzen hasi eta hurrengo hogeita hamar egun baliiodunen barnean.

56. art. Ordainketa egiteko modua.

1. Tributu zorrak eskudirutan ordaindu behar dira honako bitarteko hauetako bat erabiliz:

a) Legezko dirua

b) Posta edo telegrafo bidezko igorpena

c) Banku txekea

d) Era berean, banku edo aurrezki kutxetan horretarako toki entitateak irekitako kontuetan abonatu edo transferentzi gutuna eginez ordain daiteke tributu zorra.

2. Aurreko atalean erranagatik ere, tributu zorrak kreditu eta aurrezki entitateetan helbideratzea ere zilegi da, azken hauek sujetu pasiboaren administratzaile lana eginen dutelarik honek baimendutako zorrak ordainduz. Helbideratze horretarako betebeharrak bakarra da toki entitatearen diruzaintzari eta kreditu eta aurrezki entitateari aldezturik jakinaraztea helbideratze horiek zein tributuri dagozkion.

57. art. Gerorapenak eta zatikako ordainketak.

1. Tributu zorra likidatzean toki entitateak ordainketa geroratu edo zatika ordaintzeko aukera eman dezake, zergadunek aldezturik hala eskatzen badute.

2. Tributu zorraren gerorapen edo zatikako ordainketari buruzko gorabehera guztiak martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 90etik 92ra bitarteko artikuluek, biak barne, xedatzen dutenari lotuko zaizkio.

VII. KAPITULUA

Helegiteak

58. art. Ordenantzen behin betiko onespeneraren kontra, Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik hasita, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean izaera orokorrean ezarritako udal ebazpenen kontrako helegiteak aurkeztu ahal dira.

59. art. Aurreko artikuluan ezarritakoagatik ere, indarrean egonen da beti interesatuen eskubidea Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legean edo ordenantzetan ezarritakoa hausten duten ordainarazpenen gaineko xedapenak aplikatzen dituzten udal erabakien kontra egiteko, Udalaren ebazpenen kontrako helegiteak aurkezteko ezarritako dagoen prozedura orokorrari jarraikiz.

60. art. Zergak ordaintzeko obligazioaren edo ordainarazpen bat dela eta likidatutako kuota baten zenbatekoaren aurka helegiteren bat jartzeko, galdatutako kopurua aurretik ordaintzerik ez da eskatuko, baina erreklamazioak ez du inolaz ere zor hori kobratzeko administrazioak egiten duena oztopatuko, interesatuak ez badu udal diruzaintzan likidazioaren zenbatekoa uzten; zenbateko horri ehuneko hogeita bortz gehituko zaio sor daitezkeen errekareru, kostu edo gastuak bermatu ahal izateko.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenbizikoa.-Ordenantza fiskal honek indarra hartuko du Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera behin betikoz onesten denean, eta ondorio juridiko osoak Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN testua oso-osorik argitara ematen denean sortuko ditu.

Bigarrena.-Ordenantza fiskal orokor hau, hala nola toki entitate honek onesten dituen ordenantza bereziak aldatzeko, onesteko egin diren izapide berdinak eginen dira, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen IX. tituluko hirugarren ataleko I. kapituluaren xedatutakoaren arabera.

Hirugarrena.-Ordenantza honetan aurreikusten ez den orotan aplikagarri izanen dira Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 1995eko 2/95 Foru Legea eta udal erabakiak baino goragoko xedapen guztiak, araututako arloei aplikatzeko modukoak diren heinean.

HERRILURRETAKO ONDASUNAK PROBETXATU ETA BALIATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO ESKUBIDE ETA KANONAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA

Oinarria

1. artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legean, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legean eta horiek garatzen dituzten erregelamenduetako xedapenetan xedatutakoari jarraikiz ezarri da ordainarazpen hau.

Zergagaia

2. art. Halako jende batzuek herrilurretako ondasun eta probetxamenduak modu berezian erabiltzea da ordenantza honetako zergagaia.

Sujetu pasiboak

3. art. Herrilurretako ondasun eta probetxamenduen usufruktua edo erabilpena nori ematen zaien, pertsona fisiko edo juridiko horiexek izanen dira ordenantza honetan arautzen diren eskubide eta kanonen sujetu pasiboak.

Zerga-oinarriak

4. art. Zerga-oinarriak hauek dira:

1.-Behi azienden alhatzea, Erditz, Belate eta bertze leku batzuetako herrilurretako zerrakuretan, uda partean:

-Behi larriak

-Bigak

2.-Behor azienden alhatzea, Erditz, Belate eta bertze leku batzuetako herrilurretako zerrakuretan, negu partean:

-Behor larriak

-Pottoak

-Ardiak

-Bildots gazteak

2 (Bis).-Azienden alhatzea Lizartzuko alhatokian, maiatzetik martxora:

-Behorrak

-Pottoak

-Behiak

-Bigak

-Ardiak

3.-Alhatze baimendua herrilur irekietan:

-Ahuntz aziendak

-Ardi larriak

-Behi aziendak

-Behor larriak

4.-Herrilurretan askak egitea erabilpen partikularrerako. Hainbat herritarrek partekaturiko askak salbuetsirik geldituko dira.

5.-Ondareko urak herrilurretan barna erabili eta bideratzea:

-200 ml baino gehiagoko hodiak

-200 ml baino gutiagoko hodiak

-Asketako soberakinaren probetxamendua

6.-Herrilurrak okupatzea aziendak aterpetzeko bordak eraikitzeko

7.-Herrilurrak okupatzea ehiztariendako aterpeak eta gisakoak eraikitzeko

8.-Herrilurrak okupatzea estalpeak eta garajeak eraikitzeko

9.-Herrilurrak udalerriko bizilagunei lagatzea luberritzeko:

-Lur arrunta

-Lur berezia

-Luberritutako herrilurak eta alhatokiak probetxatzea, oinordekoak salbu

-Baratzea paratzeko lurra

10.-Herrilurretako iralekuen probetxamendua lagatzea

11.-Udalerriko bizilagunek herrilurretako harrobietan materialak, harriak eta bertze probetxatzea

11 (Bis).-Bertze udalerrri bateko bizilagunek herrilurretako harrobietan materialak, harriak eta bertze probetxatzea

12.-Probetxamendua, herrilurretatik lurra atereaz

13.-Arbola partikularrak herrilurretan landatzea

-Herrilurrak lagatzea, dokumentazio teknikoa duten landaketa berezietarako

14.-Herrilurretan seinaleztapen txartelak paratzea

Tarifak

5. art. Aplikatu beharreko tarifak eraskinean daude eta indarra izanen dute Udalak osoko bilkuran aldatu arte.

Probetxamenduak urtebete baino gehiago irauten badu, kanona urteoro eguneratuko da Nafarroarako erakunde ofizial eskudunak kontsumoaren prezio indizeen gainean onesten duen gorakadarekin batean.

Tributu-kuota

6. art. Zerga-oinarriari dagokion tarifa aplikatuta aterako da tributu-kuota.

Tarifen sortzapena

7. art. Probetxamendua edo esleipena gertatzen den momentuan izanen da tarifen sortzapena. Hura urte guztietan ordainaraziko da.

Dirubilketa

8. art. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 86. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz, ordenantza honetan jasotzen diren kasuek sortutako tributu-zorrak "jakinarazpen gabetzat" joko dira.

Haiek ordaintzeko borondatezko aldia iragartzeko ediktua paratuko da Balleko Etxeko iragarki oholean, nahiz eta Udalak, hobeki aditzera eman beharrez, ordainketa gaztigatzeko orriak ere bidal ditzakeen. Dena dela, horrelako orririk ez biltzea ez da inorendako zurigarria izanen ordaintzeko aldiaren berri izan ez duela arrazoitzeko.

9. art. Ordainarazpen hauek pagatzeko, hogeita hamar eguneko epea izanen da ediktua argitaratzen denetik edo sujetu pasiboari jakinarazten zaionetik.

10. art. Borondatezko epearen ondotik inork zorrak pagatu ez baditu, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legeak eta Udal honen ordenantza fiskal orokorrak aipatzen dituzten errekarquak ordaindu beharko ditu, eta ez-gaiturik geldituko da horietan aurreikusten diren egoeren onuradun izateko, eta bereziki herrilurretako ondasun edo probetxamendu guztiez baliatzeko.

Kudeaketa arauak

11. art. Probetxamenduei dagozkien kudeaketa arauak "Probetxamenduaz baliatzeko arautegian" biltzen diren xedapenak izanen dira.

Enkante bidez eginez gero, behar den baldintza plegua eginen da, eta hura Udalak onetsiko du osoko bilkuran. Baldintza plegu horretan, esleipenak dirauen bitartean indarra izanen duten arauak zehaztuko dira.

12. art. Ehiza barrutien baliatze eta probetxamenduaren esleipena indarra duen legeriak xedatzen duenaren ariora eginen da.

Ehiztari elkarteari zuzenean esleituz gero, esleipena zer baldintza zehatzetan egiten den adieraziko da emateko erabakian. Esleipena Udalak onetsiko du osoko bilkuran.

Aldiz, enkantea eginez gero, baldintza plegua egingen da eta hura Udalak osoko bilkuran onetsiko du. Baldintza plegu horretan, esleipenak dirauen bitartean indarra izanen duten arauak zehaztuko dira.

13. art. Herrilurretako bertzelako probetxamenduei dagozkien kudeaketa arauak behar diren esleipenak egiteko momentuan zehaztuko dira, edo bertzenaz, kasuan-kasuan komenigarri juzkatzen diren erregelamenduak prestatuz eta onetsiz.

Arau-haustek eta zehapenak

14. art. Arau-hauste eta zehapenen araubideari dagokion orotan, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legean, Ordenantza fiskal orokorrean eta ordenantza honek arautzen dituen probetxamendu eta baliatze bakoitzari dagozkion erregelamendu, enkanteentako baldintza plegu edo esleipen erabakietan xedatutakoari jarraituko zaio.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenbizikoa.-Ordenantza honetan jasotzen ez den orotan, toki entitate honek onetsitako Ordenantza fiskal orokorra eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aplikatuko dira.

Bigarrena.-Ordenantza fiskal honek bere testu osoa Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denean indarra hartu eta erabateko eragin juridikoa sortuko du.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Bakarra.-Indarrik gabe utzi dira, baliorik ez eraginik ez dutela, ordenantza hau betetzeari kontra edo traba egiten dioten udal mailako lehenagoko xedapen guztiak.

TARIFEN ERASKINA

Karga-oinarriak

1.-Behi azienden alhatzea, Erditz, Belate eta bertze leku batzuetako herrilurretako zerrakuretan, uda partean:

-Behi larriak: 3.500 pezeta buruko.

-Bigak: 3.000 pezeta buruko.

2.-Behor azienden alhatzea, Erditz, Belate eta bertze leku batzuetako herrilurretako zerrakuretan, negu partean:

-Behor larriak: 2.000 pezeta buruko.

-Pottoak: 1.500 pezeta buruko.

-Ardiak: 100 pezeta buruko.

-Bildots gazteak: 60 pezeta buruko.

2 (Bis).-Azienden alhatzea Lizartzuko alhatokian, maiatzetik martxora:

-Behorak: 2.500 pezeta buruko.

-Pottoak: 2.000 pezeta buruko.

-Behiak: 2.000 pezeta buruko.

-Bigak: 1.500 pezeta buruko.

-Ardiak: 200 pezeta buruko.

3.-Alhatze baimendua herrilur irekietan:

-Ardi larriak: 100 pezeta buruko.

-Behi aziendak: 1.500 pezeta buruko.

-Behor larriak: 2.000 pezeta buruko.

500 pezeta buruko kobratuko da tenorez kanpoko marka bakoitzagatik.

4.-Herrilurretan askak egitea erabilpen partikularrerako. Hainbat herritarrek partekaturiko askak salbuetsirik geldituko dira. 550 pezeta unitate eta urte bakoitzeko.

5.-Ondareko urak herrilurretan barna erabili eta bideratzea:

-200 ml baino gehiagoko hodiak: 550 pezeta urte bakoitzeko.

-200 ml baino guttiagoko hodiak: 275 pezeta urte bakoitzeko.

-Asketako soberakinaren probetxamendua: 385 pezeta urte bakoitzeko.

6.-Herrilurrak okupatzea aziendak aterpetzeko bordak eraikitzeko: 66 pezeta m² eta urte bakoitzeko.

7.-Herrilurrak okupatzea ehiztariendako aterpeak eta gisakoak eraikitzeko: 300 pezeta m² eta urte bakoitzeko.

8.-Herrilurrak okupatzea estalpeak eta garajeak eraikitzeko: 100 pezeta m² eta urte bakoitzeko.

9.-Herrilurrak udalerriko bizilagunei lagatzea luberritzeko:

-Lur arrunta: 120 pezeta, gizalan eta urte bakoitzeko.

-Lur berezia: 500 pezeta, gizalan eta urte bakoitzeko.

-Luberritutako herrilurrak eta alhatokiak probetxatzea, oinordekoak salbu: 1.500 pezeta, gizalan eta urte bakoitzeko.

-Baratzea paratzeko lurra: 550 pezeta, gizalan eta urte bakoitzeko, eta gutenez ere 550 pezeta.

10.-Herrilurretako iralekuen probetxamendua lagatzea: 35 pezeta, gizalan eta urte bakoitzeko.

11.-Udalerriko bizilagunek herrilurretako harrobietan materialak, harriak eta bertze probetxatzea: 1.000 pezeta tona bakoitzeko.

11 (Bis).-Bertze udalerrri bateko bizilagunek herrilurretako harrobietan materialak, harriak eta bertze probetxatzea: 1.500 pezeta tona bakoitzeko.

12.-Probetxamendua, herrilurretatik lurra atereaz: 1.500 pezeta tona bakoitzeko.

13.-Arbola partikularrak herrilurretan landatzea: 10 pezeta arbola eta urte bakoitzeko.

-Herrilurrak lagatzea, dokumentazio teknikoa duten landaketa berezietarako: 100 pezeta gizalan eta urte bakoitzeko.

14.-Herrilurretan seinaleztapen txartelak paratzea: 5.000 pezeta m² eta urte bakoitzeko.

KONTRIBUZIO BEREZIEN ORDENANTZA FISKAL OROKORRA

Oinarria

1. artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen lehenbiziko tituluko IV. kapituluaren 8. sailean xedatutakoaren babesean ezarri da ordainarazpen hau.

Zergagaia

2. art. Kontribuzio berezien zergagaia zera da: sujetu pasiboak onura bat edo bere ondasunen balio gehitze bat erdieste Udal honek toki entitatearen mailako herrilurrak egitearen ondorioz edo bere esparruan zerbitzu publikoak ezarri edo handitzearen ondorioz.

3. art. Honakoak hartuko dira toki entitatearen mailako herrilurrak eta zerbitzutzat:

a) Toki entitate honek bere eskumenen esparruan esleitu zaizkion eginkizunak betetzeko egiten dituenak, salbu eta bere ondareko ondasunen jabe den aldetik egiten dituenak.

b) Toki entitate honek bertze entitate publikoren batek esleitu edo eskuordetuta egiten dituenak eta legegari jarraikiz titulartasuna bere gain hartu dituen zerbitzuak.

c) Toki entitate honek dirulaguntza emanik bertze entitate publikoren batek edo haien kontzesiodunek egiten dituztenak.

4. art. 1. Aurreko zenbakiko a) letran sartzen direnak toki entitatearen esparruko lan edo zerbitzutat joko dira nahiz eta haien egileak izan kapital soziala osorik toki entitatearena duten erakunde autonomo edo merkataritza sozietateak, edo toki entitateak dirulaguntza emandako kontzesiodunak edo zergadunen administrazio elkarteak.

2. Kontribuzio bereziengatik likidatutako eskubideek, zer obra edo zerbitzuren aldera eskatu ziren, harexen gastuak berdintzea, bertze helbururik ez dute izaten ahal.

5. art. 1. Obren kostuak jabeen bizkar izan behar duenetan izan ezik, toki entitate honek kontribuzio bereziak eskatzen ahal ditu ondoko obra eta zerbitzuengatik, beti ere betetzen badira ordenantza honetako 7. artikuluan ezarritako baldintzak:

a) Kale eta plazak irekitzea, lehendik irekitako kale eta plazak zabaldu eta haietan lerrokadura berriak egitea.

b) Hiriko eremu publikoetako galtzada, espaloi, isurbide eta ureztaketa ahoak lehen aldiz eraiki edo aldatzea.

c) Hondakin uren estolderia eta hustubide sareak egin eta berritzea.

d) Argindarra banatzeko sareak paratzea eta argiteria publikoa ezarri, aldatu edo hobetzea.

e) Ur-hornidura sareak paratu, aldatu eta hobetzea, eta sektore baten intereserako beharrezko bada, ur biltegiak handiagotzea hornidura hobetzeko.

f) Su-itzaltze zerbitzuak jarri eta hobetzea.

g) Ura hartu, urtegiratu, biltegiratu, bideratu eta arazteko lanak, ur hornidurarako, non ez diren interes orokorrekoak.

h) Hondakin uren araztegiak eta kolektore nagusiak, biztanleria guztiarendako ez badira.

i) Kale eta plazetan arbolak aldatzea, parkeak eta lorategiak eraiki eta hobetzea, halako sektore batendako interesa badute.

j) Lurrerauzketak, betelanak eta eustormak egitea.

k) Lehortze eta saneamendu lanak, lurrak uberroen eta uholdeen kontrako babertzekoak, baita ur-tirak erregulatu eta desbideratzekoak.

l) Lurpeko galeriak egitea, ura, gasa, argindarra eta bertzelako isurkia banatzeko sareak eta hodiak paratzeko, eta komunikazio eta informazio zerbitzuetarako.

m) Toki entitatearen bertzelako herrilan edo zerbitzu publikoak egin, ezarri edo handitzea.

2. Ez da inoiz kontribuzio berezirik galdatzen ahal, toki entitatearen herrilan edo zerbitzu publikoak biztanle guztiendako badira.

Salbuespenak

6. art. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen seigarren xedapen gehigarriaren ondorioz, mankomunitateak eta batasunak, baita beraiek beren xedeak garatzeko sortutako entitate juridikoak eta administrazio barrutiak ere, kontribuzio berezietatik salbuetsirik egonen dira.

Sujetu pasiboa

7. art. 1. Kontribuzio berezien sujetu pasiboak pertsona fisikoak nahiz juridikoak dira, baita unitate ekonomikoa edo ondare banatua osatzen duten nortasun juridikorik gabeko entitateak ere, baldin eta onura berezia hartzen badute toki entitatearen esparruan kontribuzioa ordaintzeko betebeharra sortzen duten herrilanak edo zerbitzuak egitetik, ezartzetik edo handitzetik.

2. Onura bereziaren hartzailatzat hauek hartuko dira:

a) Kontribuzio berezia sortzen bada ondasun higiezinak ukitzen dituzten herrilanak edo zerbitzuak egitetik, ezartzetik edo handitzetik, ondasun higiezin horien jabeak.

b) Kontribuzio berezia sortzen bada enpresa ustiapenen ondoriozko herrilanak edo zerbitzuak egitetik, ezartzetik edo handitzetik, ustiategiaren jabe den pertsonak edo entitate titularrek.

c) Kontribuzio berezia sortzen bada su itzaltze zerbitzua handitzetik edo hobetzetik, ondasun ukituen jabeek gain, arlo hartan lanean aritzen diren aseguru konpainiak, udal mugapearen barnean.

d) Kontribuzio berezia sortzen bada lurpeko galeriak egitetik, haiek erabili behar dituzten hornidura enpresak.

Zerga-oinarria

8. art. 1. Gehenez ere, lanak egiteagatik edo zerbitzuak ezarri edo handitzeagatik toki entitateak jasaten duen kostuaren ehuneko 90k osatuko du kontribuzio berezien zerga oinarria. Toki entitateak, ordaintzeko aginduaren erabakia hartzerakoan, kasu bakoitzean aplikatu beharreko portzentaia finkatuko du

2. Kostu hori honako kontzeptuok osatuko dute:

a) Peritu lan, proiektu idazte eta lan zuzentze, plan eta egitarau teknikoen kostu benetakoa.

b) Egin beharreko lanen edo zerbitzu ezartze edo handitzearen zenbatekoa.

c) Lan edo zerbitzuek etenik gabe okupatu behar dituzten lurren balioa, non eta erabilera publikoko ondasunak ez diren, edo toki entitateari dohainik eta nahitaez emandako lurrak edo Estatuak nahiz Nafarroako Foru Komunitateak Udalarari emandako eraikinak.

d) Eraikinak eraitsi eta laborantzak, obrak edo instalazioak desegiteagatik ordaindu behar diren kalteordainak, baita suntsitu edo okupatu beharreko ondasunen errentariei dagozkienak ere.

e) Zerbitzu eta herrilanean inbertitu den kapitalaren korritua, toki entitateak kreditura jo behar duenean kontribuzio bereziek ez dutelako kostu osoa berdintzen edo berdinduta ere kontribuzioak orokorki zatikaturik daudelako.

9. art. Lan edo zerbitzuetarako aurrekontuak jarritako kostu osoa aurreikuspen hutsa izanen da. Benetako kostua handiagoa edo txikiagoa izatera, hura hartuko da dagokion kuota kalkulatzeko.

10. art. Lan edo zerbitzuak direlarik ordenantza honetako 3.c) artikulua aipatzen dituenetakoa, edo ordenantza honetako 4. artikuluko 1 zenbakiak aipatzen dituenetakoa, toki entitateak dirulaguntza emanda kontzesiodunek egindakoa alegia, kontribuzio berezien zerga oinarria finkatzeko, dirulaguntza horien zenbatekoa hartuko da kontutan; horrek ez du galarazten bertze administrazio publikoek lan edo zerbitzu horrexentzat bertze laguntzak ematerik. Dena dela, ordenantza honetako 8. artikuluko 1 zenbakiak aipatzen duen muga begiratuko da, ehuneko 90 alegia.

11. art. 1. Zerga-oinarria finkatzeko, hau ulertuko da toki entitateak bere gain hartutako kostuz: osotarako kostuaren zifrari toki entitateak erdiesten dituen dirulaguntzak kenduz ateratzen den zenbatekoa.

2. Dirulaguntza edo laguntza hori kontribuzio bereziaren sujetu pasibo batek emana bada, haren zenbatekoak pertsona edo entitate horren kuota konpentsatzea izanen du lehen helburua. Dirulaguntzaren zenbatekoak kuotari gainez egiten badio, gaindikina, hainbana partiturik, bertze sujetu pasiboen kuotak gutxitzeko erabiliko da.

Kuotak

12. art. Sujetu pasibo bakoitzari ondoko artikulura bildutako banaketa-irizpideei jarraikiz zerga-oinarriaren atal bat egoztearen ondoriozko magnitudea da kontribuzio berezien kuota.

13. art. Kontribuzio berezien zerga-oinarria sujetu pasiboen artean banatuko da, lan eta zerbitzuak zer motatakoak eta nolakoak diren kontuan hartuz eta arau hauei jarraikiz:

a) Oro har, banaketa egiteko, modulu hauek erabiliko dira, denak batera: higiezin fatxadako metro linealak, lur kontribuzioaren aldetik katastroan duten balioa, lurzatiaren azalera eta bolumen eraikigarria. Tributuaren zenbateko osoa ordaintzeko, irizpide horiek hainbanakotzat hartuko dira.

b) Su itzaltze zerbitzua ezarri, handitu edo hobetzeko bada, eta, jabeekin batean, udal mugapeko ondasunen arriskua estaltzen duten aseguru entitateak aurkezten badira, denak sujetu pasibo gisa, entitate horiei dagokien kuota atala beraien artean banatzen ahalko da, aurre-aurreko urtean bildutako aseguru-sarien zenbatekoaren heinean.

c) Sujetu pasibo bakoitzari eskatzen ahal zaion kuota berak bildutako aseguru-sarien zenbatekoaren ehuneko 5 baino handiagoa bada, gaindikina hurrengo ekitaldietara atzeratuko da harik eta erabat amortizatu arte.

d) Ordenantza honetako 7. artikuluko 2.d) atalak aipatzen dituen lanen kasuetan, kontribuzio bereziaren zenbateko osoa obra hori erabiliko duten konpainia edo enpresen

artean banatuko da, bakoitzarendako gordetako tokiaren arabera edo bakoitzak duen atal osoaren arabera, nahiz eta berehalakoan ez erabili.

14. art. Ordaindu beharreko kuota zehaztutakoan, toki entitateak, sujetu pasiboak eskaturik, kuota horren ordainketa zatitzea edo atzeratzea onar dezake, gehienez era bortz urtetarako.

Sortzapena

15. art. 1. Kontribuzio berezien sortzapena lanak egiten diren momentuan berean gertatzen da, edo zerbitzua ematen hasten denean.

Lanak zatikagarriak baldin badira, lanaren tarte edo zati bakoitzari dagozkionak bukatu ondoan gertatuko da sortzapena.

2. Aitzineko artikuluan xedatutakoa ukatu gabe, toki entitateak eskatzen ahal du, alde zurretik eta ezartze eta ordaintzeko aginduaren erabaki zehatza onetsitakoan, kontribuzio berezien ordainketa, hurrengo urterako aurreikusitako gastuen zenbatekoaren arabera. Aurrerakin horiek premiamendu bidez eska daitezke.

3. Ez da bertze urte bateko aurrerarikin eskatzen ahal, lehenago zein lanetarako eskatu zen aurrerakina, horiek jadanik burutu ez badira.

Dirubilketa

16. art. 1. Ordenantza hau aplikatzearen ondoriozko tributu-zorrak kitzazeari doakionean, toki entitate honen Ordenantza fiskal orokorrean xedatutakoa aplikatzen ahal da epeez, errekarquez eta gainerakoez den bezainbatean. Delako Ordenantza fiskal orokorrean jasotzen ez den orotan, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aplikatuko da.

2. Kontribuzio bereziengatik likidatzen diren eskubideak, zer herrilan edo zerbitzutarako eskatu diren, horiexen gastuak ordaintzeko baizik ez dira erabiliko.

Kudeaketa arauak

17. art. Kontribuzio bereziak ordainarazteko aurretik kasuan kasuko ezarpen erabakia hartu beharko da.

18. art. Kontribuzio berezien bidez ordaindu beharreko herrilaren bat egin edo zerbitzuren bat ezarri edo handitzeko erabakia betearazi aitzin, beharrezkoa izanen da horiek ordaintzeko agindu zehatza onestea.

19. art. 1. Lanak osoki nahiz partez burututakoan, edo zerbitzu egiten hasitakoan, sujetu pasiboak, oinarria eta bakoitzaren behin betiko kuota zehaztuko dira. Orduan, bidezko diren likidazioak igorpenduko dira eta, ordainketa aurreraturik egin baldin bada, horiek berdinduko dira konturako entregatzat hartuz.

2. Ordainketa aurreratuak ordainarazpenaren sortzapenaren egunean sujetu pasibo ez den jendeak egin baditu, edo bakoitzari dagokion behin betiko kuota baino gehiago badira, toki entitateak behar den dirua itzuliko du, ofizioz itzuli ere.

20. art. Behin kontribuzio bereziak agintzeko erabaki zehatza hartu delarik eta ordaindu beharreko kuotak zehaztu, sujetu pasibo bakoitzari emanen zaizkio aditzera kuota horiek baldin sujetua edo haren helbidea ezaguna bada, eta bertzenaz ediktu bidez.

Interesatuek zilegi izanen dute helegitea jartzea Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen bederatzigarren tituluko II. kapituluak aurreikusten duen bezala.

21. art. 1. Toki entitate batek bere eskumeneko herrilanak edo zerbitzuak egiteko bertze toki entitate baten laguntza ekonomikoa erabiltzen badu, beti ere ordenantza honetan xedatutakoaren arabera kontribuzio bereziak ezartzen badira, lanak egitea edo zerbitzua ezartzea bere esku hartzen duen entitatea arduratuko da kudeaketaz eta bilketaz, baina, hori hala izanik ere, entitate bakoitzak bere eskumenari eutsiko dio, kontribuzioak ezarpen eta ordaintzeko aginduen erabakiei dagokienez.

2. Entitate horietako batek ordaintzeko aginduaren erabaki zehatza onesten ez badu, jarduketa unitatea indarrrik gabe geldituko da eta bakoitzak bere kasa hartuko ditu bidezkoak diren erabakiak.

Herritarren lankidetzak

22. art. 1. Obrek ukitutako jabe edo titularrek zergadunen administrazio elkarteak eratzen ahal dute eta toki entitateak herrilanak egin edo zerbitzuak ezarri edo handitu ditzan bultzatu, toki entitatearen finantza egoerak horretarako aukerarik ematen ez badiu, horri dagokion parteak, bere gain hartzeko hitza emanez, obra nahiz zerbitzuaren nolakoa, horren ariora beraiei dagokienez gainera.

2. Halaberean, toki entitateak sustatutako herrilan edo zerbitzuak egin, ezarri edo handitzearen ondorioz ukituak gertatzen diren jabe edo titularrek zergadunen administrazio elkarteak eratzen ahal dute kontribuzio bereziak ordaintzeko aginduaren erabakia jendaurrean egon bitartean, Udalak erabakitako obran edo zerbitzuan laguntza emanik parte hartu ahal izateko.

23. art. Zergadunen elkarteen jardunbideaz, eskumenez, estatutuen onespenez eta kontratazioaz den bezainbatean, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean ezarritakoari eginen zaio men.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenbizikoa.-Ordenantza honetan jasotzen ez den orotan, toki entitate honek onetsitako Ordenantza fiskal orokorra eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aplikatuko dira.

Bigarrena.-Ordenantza fiskal honek bere testu osoa Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denean indarra hartu eta erabateko eragin juridikoa sortuko du.

ORDENANTZA, AUZOLANA ETA BIDELANA ARAUTZEN DITUENA

Oinarria

1. artikulua. Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean xedatutakoaren babesean ezarri da ordenantza hau (haren 12, 53 eta 54. artikulua).

Xedea

2. art. Ordenantza honek xedea du arautzea, batetik, herritarren lana, auzolan, auzalan edo artelan izenekin ere ezagutua, eta, bertzetik, herriko bideak eta mendi bideak egin, zaindu eta hobetzeko bidelana, hau da, oro har toki entitate honen eskumenetan biltzen diren obra guztiak.

Bi prestazioetarako arauak

3. art. Auzolana eta bidelana, biak, bateragarriak dira eta aldi berean ere eman daitezke. Beraz, aldi berean ematen direnean, bidelana bete behar dituztenek auzolana ere garraio elementu berekin egiten ahalko dute.

4. art. Lana egitera ez etortzeak, ezinbertzeko kasuetan salbu eta aitzinetik librantza egin ez baldin bada, haren diru zenbatekoa eta bertze hainbertzeko isuna ordaindu beharra ekarriko du. Emanen den epean ordaintzen ez baldin bada, premiamendu bideari ekinen zaio.

5. art. Toki entitate honek urtero onetsiko ditu, osoko bilkuran hartutako erabakien bitartez, auzolana eta bidelana egitekoaldiak, beti ere kontuan harturik udalerrian lan handienetako garaiekin batera izan ez daitezen.

Baztango herrietako alkate zindunek aitzinetik batzarrean erabakia hartuta, udalbatzari eskatuko diote bere herriari dagokion proposamena onar dezan.

Auzolana

6. art. Auzolana toki entitate honetan bizi diren guztiak egin behar dute, ondoko hauek salbu:

- a) Hemezortzi urtetik beheetikoeak eta berrogeita hamabortz urtetik goitikoak.
- b) Ezindu fisiko, psikiko eta zentzumenezkoak.
- c) Espetxeetan preso daudenek.
- d) Soldadu edo ordezipeneko prestazio sozialean daudenek, hartan egon bitartean.

7. art. Toki entitate honek babestuko ditu auzolanean ari diren biztanleak gertatzen ahal zaizkien istripuen arriskutik.

8. art. Auzolana ez da urtean hamar egun baino gehiagokoa izanen, ez eta hiru egunetan jarraian eginen ere. Interesatuaren ordeztu bertzeko pertsona batek egiten ahal du auzolana, beti ere horretarako egokia baldin bada eta bere borondatez egiten baldin bada. Orobat, auzolanaren librantza egin daiteke lanbideen arteko guttieneko soldataren bi halako ordainduz.

Bidelana

9. art. Bidelanean parte hartu beharra dute, nahitaez eta salbuespenik gabe, herriko enpresa-ustiategietan garraio elementuak dituzten pertsona orok, fisiko zein juridikoek eta herrian bizi edo ez.

10. art. Trakzio mekanikoko ibilgailuen garraio prestazioak urtean gehienez ere bostz egun hartuko ditu eta egunak ez dira jarraian egonen. Haren ordean, lanbideen arteko guttueneko soldataren hiru halako ordain daiteke.

Gainerako kasuetan, urtean ez dira hamar egun baino gehiago izanen ez eta bi egun jarraian baino gehiagotan egingen ere.

11. art. Bidelana egiteko ibilgailuek kontsumitzen duten erregaia toki entitate honek ordainduko du.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenbizikoa.-Ordenantza honetan jasotzen ez den orotan, Ordenantza fiskal orokorra eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aplikatuko dira.

Bigarrena.-Ordenantza fiskal honek bere testu osoa Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denean indarra hartu eta erabateko eragin juridikoa sortuko du.

AGIRIAK LUZATU ETA IZAPIDATZEKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA

Xedapen orokorra

1. artikulua. Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 100. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren babesean ezarri da ordenantza hau.

Ordainarazpenaren xedea

2. art. Udal administrazioak edo udal agintariek luzatu edo hartzen dituzten agiri hauek alderdi baten eskariz izapidatzea da ordainarazpen honen xedea:

1.-Planoen kopiak

2.-Ziurtagiriak

3.-Fotokopiak

4.-Konpultsak

5.-Inprimakiak

6.-Aurrekontuak eta ordenantza fiskalak

7.-Lizentziak, kontzesioak eta baimenak

Zergagaia

3. art. Alderdi batek eskaturik, ordenantza honen xede diren agiri eta espedienteen izapidaketa dela eta, Udalak egin beharreko jarduerak sortuko du zergagaia.

Zerga ordaindu beharra

4. art. Ordaindu beharra sortzen da norberaren intereserako, udal administrazioak edo udal agintariek euren eskumenekoak diren edo izan behar duten edozein agiri ematea eskatu hutsarekin.

Sujetu pasiboa

5. art. Udal administrazioak edo udal agintariek ematen dituzten edo beren eskumenekoak dituzten agiriak eskatu, sortarazi edo haien onura jasotzen duten pertsona natural nahiz juridikoak dira sujetu pasiboak.

Tarifak

6. art. Ordenantza hau lotuko duten tarifak eraskinean agertzen dira.

Kudeaketa eta dirubilketarako arauak

7. art. 1. Tasa sortuztat hartuko da dokumentua Udalaren erregistro orokorrean aurkezten denean eta udal bulegoetan ordenantzapeko eskabiderik ez dokumenturik ez da hartuko, ez eta tramitatuko ere aldez aurretik ez bada ordainketa egin.

2. Udal zigituaren itzulketa behar duen dokumenturik ez da luzatuko dokumentua ematen duen funtzionarioak betekizun hori bete ez badu.

Aurrekinak bilatzeko eskaera orok tasa sortuko du emaitza negatiboa bada ere.

8. art. Udal administrazioaren dokumentu eta berriemateen Sarrera eta Irteera Erregistro Orokorraren ardura duten funtzionarioek emanen dituzten udal zigitudun agiri guztiak zenbatuko dituzte eta Udal Gordailuzaintzan egunero dirusarrerak, dagozkien likidazioekin egingen dituzte.

Arau-haustek eta zehapenak

9. art. Udal administrazioaren dokumentu eta berriemateen Sarrera eta Irteera Erregistro Orokorraren ardura duten funtzionarioak eta Udal Gordailuzaintzaren langile arduradunak izanen dira iruzurraren erantzule. Iruzurra indarra duten xedapenetan aurreikusitako eran zigortuko da.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenbizikoa.-Ordenantza honetan aurreikusi ez den orotan, Ordenantza fiskal orokorrean eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean xedatutakoa aplikatuko da.

Bigarrena.-Ordenantza honek bere testu osoa Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denean indarra hartu eta erabateko eragin juridikoa sortuko du.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Bakarra.-Indarrik gabe utzi dira, baliorik ez eraginik ez dutela, ordenantza hau betetzeari kontra edo traba egiten dioten udal mailako lehenagoko xedapen guztiak.

TARIFEN ERASKINA

1.-Planoen kopiak

-Planoen fotokopiengatik, DIN A-3: 200 pezeta.

2.-Ziurtagiriak

-Frogagiriak, diligentziak, ediktuak. emateagatik: 100 pezeta.

-Artxiboko ziurtagiriengatik: 500 pezeta.

-Katastroko orriak emateagatik: 200 pezeta.

3.-Fotokopiak

DIN A-4 neurriko fotokopiak: 10 pezeta.

DIN A-3 neurriko fotokopiak: 20 pezeta.

4.-Konpultsak

-Agirien konpultsa (1-5 orri): 100 pezeta.

-Agirien konpultsa (6-30 orri): 200 pezeta.

-Agirien konpultsa (30 orri baino gehiago): 300 pezeta.

5.-Inprimakiak

-Zirkulazio zergako alta eta aldaketen inprimakiak: 100 pezeta.

-Altak, aldaketak eta eskualdaketak Lurraren gaineko Aberastasunean: 1.000 pezeta.

6.-Aurrekontuak eta ordenantza fiskalak

-Ordenantza bakoitzagatik: 500 pezeta.

-Aurrekontu bakoitzagatik: 700 pezeta.

7.-Lizentziak, kontzesioak eta baimenak

-Lur bereizketak: 5.000 pezeta, gehi zerbitzu teknikoen gastuak.

-Hirigintzako jarduketa programak, plan partzialak, plan bereziak, exekuzio unitateen mugapena, xehetasun azterlanak, urbanizazio proiektuak, baita haien aldaketak ere: 25.000 pezeta, gehi zerbitzu teknikoen eta publizitatearen gastuak.

-Baztango arau subsidiarioetako aldaketak: 50.000 pezeta, gehi zerbitzu teknikoen eta publizitatearen gastuak.

ORDENANTZA FISKALA, IREKITZEKO ETA JARDUERA ESKUALDATZEKO LIZENTZIEN TASAK ARAUTZEN DITUENA

Oinarria

1. artikulua. Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 180. artikuluan eta hurrengoetan, hala nola Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 100. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren babesean ezarri da ordenantza hau.

Ordainarazpenaren xedea

2. art. Ordainarazpenaren xede dira hurrengo kasuetan ematen diren lizentziak:

- 1.-Jarduera berritik paratzea toki batean.
- 2.-Jarduera toki batetik bertzera aldatzea.
- 3.-Jardueran aldaketak egitea, haren izena, jabea eta egoitza aldatu gabe ere.
- 4.-Jarduera handitzea, eta hori gertatutzat emanen da jarduera sailkatuen gaineko kontribuzioa handitzen den aldiro, non ez den araudi fiskalaren aldaketak sortua.
- 5.-Eskualdaketak eta titular aldaketak, bertan garatzen den jarduera aldatu edo handitu gabe.
- 6.-Lizentzia berrikustea, titularraren jarduketek edo administrazioak bultzaturik.

Zergagaia

3. art. Establezimenduak ireki, eskuz aldatu edo titularra aldatzeko lizentziak eman aurretik eskuratu beharreko zerbitzu tekniko eta administratiboak, establezimenduek edo lokalek, paratzeko, nahitaez izan behar baitituzte; horra zergagaia.

Zerga ordaindu beharra

4. art. Zergak ordaintzeko betebeharra sortzen da:

- 1.-Lizentzia ematen den unean berean.
- 2.-Ordenantza honen 2. artikuluan ezarritako inguruabarren bat gertatzen denean.

Salbuespenak

5. art. Nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak salbuetsirik daude tasa hau aplikatzetik.

Sujetu pasiboa

6. art. Pertsona natural edo juridikoak daude beharturik ordenantza honetan ezarritako tasak ordaintzera, lizentzia ematen bazaie jarduera batean aritzeko, eskualdaketa egiten bazaie edo lizentziaren titulartasuna ematen.

7. art. Tarifak ordenantza honen eraskinean ageri dira.

8. art. Interesatuak eskatutako lizentziari espreski uko egiten badio, tasa %80 murriztuko dira.

Kudeaketa arauak

9. art. Establezimendua irekitzeko lizentzia erdiesteko interesa duenak behar den eskabidea aurkeztuko du Balleko Etxean, lokalean egin beharreko jarduera(k) eta tokia zehazten dituela, behar den legerian eskatutako dokumentazioarekin batera.

10. art. Lizentzia eman eta tasaren likidazioa onetsia dela, interesatuak ordaindu egin beharko du, jakinarazpena jasotzen duenetik aitzina borondatezko kobrantza aldiaren

barrean, bertzelakoan, inolako gaztigurik gabe, premiamendu bidez kobratuko bailitzateke.

11. art. Emandako lizentziek balioa galduko dute dagokien ordenantzan ezarritako epe eta arauen arabera, eta hori gertatuz gero, jardueran ari nahi duten interesatuek lizentzia berria eskatu beharko dute eta tasa oso-osorik berriz ordaindu.

Interesatuek, jarduera ekonomikoetan alta hartzeko, Udalaren irekitzeko lizentzia beharko dute.

12. art. Titulartasuna aldatu edo eskualdaketa gertatzen denean, lizentziaren titular berriak Udalari jakinaraziko dio egiaztagiriak aurkeztuz.

Arau-hauste eta zehapenak

13. art. Iruzurtzat hartuko dira arau-hauste berezi hauek:

a) Lokalak irekitzea behar den lizentzia erdietsi gabe.

b) Zerga-oinarria zehazteko behar diren datuak gezurrezkoak izatea.

Bertzelako arau-hausteetarako ordenantza fiskal orokorrean xedatutakoari jarraituko zaio, edo bertzenaz, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta harekin bat datozen araei.

14. art. Arau-hausteei dagozkien zehapenak, ordenantza fiskal orokorrean, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean eta harekin bat datozen arauetan gobernaturiko dira.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenbizikoa.-Ordenantza honetan aurreikusi ez den orotan, toki entitate honek onetsitako ordenantza fiskal orokorrean eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean xedatutakoa aplikatuko da.

Bigarrena.-Ordenantza honek bere testu osoa Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denean indarra hartu eta erabateko eragin juridikoa sortuko du.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Bakarra.-Indarrrik gabe utzi dira, baliorik ez eraginik ez dutela, ordenantza hau betetzeari kontra edo traba egiten dioten udal mailako lehenagoko xedapen guztiak.

TARIFEN ERASKINA

Irekitzeko eta jarduera eskualdatzeko lizentzien tasak arautzen dituen ordenantza fiskalarena.

I.-Jarduera berritik paratzea, lekualdatzea eta aldaketak:

-Beheitian: 395 pezeta, metro karratu edo horren zatiki bakoitzeko.

-Sotoan: 195 pezeta, metro karratu edo horren zatiki bakoitzeko.

-Bertze solairuetan: 100 pezeta, metro karratu edo horren zatiki bakoitzeko.

II.-Jarduera handitzea, haren kalifikazioa aldatzea, eskualdatzea eta jarduera bera aldatzea:

-Aplikatu beharreko tarifak I. puntukoen %50 izanen dira.

ORDENANTZA FISKALA, ESTOLDERIA TASA ETA HONDAKIN-UREN ARAZKETARENA ARAUTZEN DUENA

Oinarria

1. artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 100. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren babesean ezarri da ordenantza hau.

Zergagaia

2. art. Hau da tasaren zergagaia:

a) Toki entitateko estolderiaren sarera lotzeko baimena ematen ahal izateko behar diren baldintzak bete daitezzen egiten den udal jarduera tekniko eta administratiboa.

b) Toki entitatearen estolderiaren sarearen bitartez gorozkiak, euri-urak, eta ur beltz eta zikinak biltzeko eta horien arazketa-tratamendua egiteko zerbitzua ematea.

3. art. Ez daude tasa honi lotuak finka lurrera eroriak, erortzeko arriskua deklaratu dutenak edo orube edo lurzati direnak.

Salbuespenak

4. art. Ez da salbuespenik eginen ordainarazpen honi dagokionez.

Sujetu pasiboak

5. art. Zergadun gisa ordainarazpen honen sujetu pasiboak hauek dira: pertsona fisiko edo juridikoak eta Tributuei buruzko Lege Orokorraren 33. artikulua aipatzen dituen entitateak, honako kasuetan:

a) Finkaren jabea, usufruktuduna edo erabilpenaren titularra, sarera lotzeko lizentzia denean.

b) Zerbitzu horietaz baliatzen diren udalerriko finketako bizilagun edo erabiltzaileak, beren titulua edozein delarik ere (jabeak, usufruktudunak, gela bat hartua dutenak edo maizterrak, baita ordaindu gabe norbaitek utzita bada ere), ordenantza honen 2.b) artikuluan sartutako zerbitzuen kasuan.

6. art. Beti ere, higiezinaren jabea hartuko da etxebizitza edo lokal horietako bizilagun edo erabiltzailearen ordezkotako sujetu pasibotzat.

Tributu-kuota

7. art. 1. Estolderiaren sarera lotzeko lizentzia edo baimenari dagokion tributu-kuota behin baizik ez da eskatuko eta 10.000 pezetako zenbateko finkoa izanen da.

2. Finkan zenbat ur erabili den, metro kubikoetan neurtua, horren ariora zehaztuko da tributu-kuota estolderia eta arazketa zerbitzuengatik. Hori neurgailuak paratzen direnez geroztik, eta bitartean tarifa hauek erabiliko dira:

a) Etxebizitzak: 500 pezeta urtean.

b) Lokalak, etxebizitzetarako bakarrik ez direnak: 500 pezeta urtean.

8. art. Sekula ere ezin da hartu ur horniduragatik fakturatzen den gutxiengoa baino gutxiagoko kontsumoa. Kontsumo horretatik datorren kuota eskatzen ahal den gutxiengokotzat hartuko da.

Sortzapena

9. art. Sortutako tasa zergagaiaren udal jarduera hasten den unean ordaindu beharra dago. Hasieratzat hauxe hartuko da:

a) Sarera lotzeko baimena lortzeko eskabidea aurkezten den egunean, sujetu pasiboak espreski egiten duenean.

b) Udalaren estolderiaren sarera egiaz lotzen den egunaz geroztik. Kasu honetan tasa ordaindu beharko da sarera lotzeko baimena lortu ala ez lortu, eta hura lortzeko espediente administratiboaren hasiera deusetan ukatu gabe.

10. art. Gorozkiak, euri-urak eta ur beltz eta zikinak biltzeko eta horien arazketa-tratamendurako zerbitzuak derrigorrezkoak dira estolderia duten kale, plaza edo bide publikoetara ematen duten fatxada duten toki entitateko finka guztientzat, baldin eta finkaren eta sarearen artean ehun metrotik goiti ez badago. Tasa beti kobratuko da, interesatuak sarera lotu ala ez.

Aitorpena, likidazioa eta dirusarrera

11. art. Zergadunaren ordezeko sujetu pasiboek alta eta baja aitorpenak egin behar dituzte tasaren sujetu pasiboen erroldan. Finkaren titulartasunaren aldaketa egiten denetik hurrengo hilabeteko azken egunera bitartean egin behar dira aitorpenak.

12. art. Aurreko artikulua aipatzen dituen aitorpenek egiten den lehen likidaziotik aurrera izanen dute eragina, alta eta baja aitorpenak aurkezteko epea bukatutakoan.

13. art. Erroldan hasiera batez sartzeari ofizioz egingen da, sarera lotzeko baimena emandakoan.

14. art. Tasa honengatik galdatzen ahal diren kuotak uraren hornidura eta kontsumoaren ordainargiriei dituzten epe berberetan likidatu eta bilduko dira.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenbizikoa.-Ordenantza honetan jasotzen ez den orotan, Ordenantza fiskal orokorra eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aplikatuko dira.

Bigarrena.-Ordenantza honek bere testu osoa Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denean indarra hartu eta erabateko eragin juridikoa sortuko du.

ZABORRAK ETA OBRA-HONDAKINAK BILTZEKO ZERBITZUEN PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

Oinarria

1. artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 28. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren babespean ezarri da ordainarazpen hau.

Zergagaia

2. art. Honako hauek dira zergagai: zabor eta hondakinen bilketako zerbitzua erabili edo erabilgarri izatea edo Udalak bere mugapearen barnean zerbitzua ematea, bai eta isurki edo obra-hondakinak udal zabortegira zuzenean botatzea ere.

Zerbitzu nahitaezkoa

3. art. Zerbitzua nahitaez eman beharrekoa denez gero, ordaindu beharra zerbitzua ematen den unetik beretik sortzen da, kontutan hartu gabe bera erabiltzen den edo ez.

Aitzitik, udal zabortegira zuzenean botata zabor eta hondakinak deuseztatzeko zerbitzuari dagokionean, ordaindu beharra aipatu horiek botatzearekin sortzen da.

Sujetu pasiboak

4. art. Honako hauek hartuko dira sujetu pasibotzat:

a) Etxez etxe zaborrak bildu eta ondotik deuseztatzeko zerbitzuaren prezio publikoei dagokienez udal mugapearen barnean, etxebizitza, lokal, establezimendu, instalazio eta gainerakoetarako ur hornidura kontratatua daukaten pertsona natural edo juridikoak.

b) Zabor eta hondakinak udal zabortegira zuzenean botatzeko zerbitzuaren tasen kasuan, berriz, botatze horietarako baimena eskatzen duten pertsona edo entitateak.

Zerga-oinarria

5. art. Ordainarazpen honen zerga-oinarri dira:

1. Zaborbilketa zerbitzuari dagokionez, ordenantza honetako 4. artikulua a) atalean aipatu etxebizitzak, lokalak eta establezimenduak, eta zaborrak sorrarazten ahal dituzten gainerako instalazioak nolnahi okupatzea, udal mugapearen barnean sarturik badaude.

2. Hondakinak zuzenean eramaten badira, horiek deuseztatzeko zerbitzuari dagokionez, eramandako metro kubikoen kopuruak.

Tarifak

6. art. Aplikatuko diren tarifak ordenantza honen eraskinean ageri dira eta indarra izanen dute harik eta Udalak osoko bilkuran aldatzea erabaki arte.

Kudeaketa arauak

7. art. 1. Zerbitzua Udalarekin kontratatua duenak eginen du etxez etxeko zaborbilketa, eta Udalak zerbitzua bere egiten badu, orduan udal langileek.

8. art. Aipatu kasuetan, bai modu batean, bai bertzean, izan litezkeen bitartekorik egokienak erabiliko dira, zaborbilketa ahalik eta agudoen eta ahalik eta baldintza higieniko-sanitario hoberenetan egin dadin.

9. art. Zerbitzua behar bezala egiteko, herritar guztiek poltsa itxiak erabiliko dituzte, aldi bakoitzean erraten den material eta ezaugarrikoak.

10. art. Zaborbilketaren ibilgailua Udalak aldi bakoitzean erraten duen moduan eta halabereko aldikotasunez pasatuko da, nahiz ahaleginak eginen diren egunero egiteko edo, herri urrunenetan, bi egunetik behin, igande eta jaiegunak kenduta. Orobat, ahaleginak eginen dira ordutegi finko bati egokitzeko, aitzinetik ezarritako tokietatik pasatuko delarik ordu zehaztuetan.

11. art. Herritarrek hondakinak bereiziko dituzte mota bakoitzaren ariora, eta horretarako paratutako edukiontzi berezi bakoitzera botako.

12. art. Zaborbilketaren tasak ordainagari bidez kobratuko dira, bankuetan helbideratuz, eta, salbuespenez, zuzenean Udalaren diruzaintzan.

13. art. Arrunt debekaturik dago edozein motatako hondakinak botatzea Udalak horretarako paratzen dituen edukiontzi edo hondakindegietatik kanpora.

14. art. Udalak hondakinak sorrarazten dituzten industria eta merkataritzako establezimenduei kategoria berezia ematen ahal die, hondakinen zenbatekoa, osaketa eta abarrei begiraturik. Kasu horietako bakoitza banan- banan aztertuko da eta horietarako zehazten diren arau partikularrak ezarriko dira.

Arau-haustek eta zehapenak

15. art. Arau-hauste eta haien zehapenei dagokien orotan, ordenantza fiskal orokorrari jarraituko zaio.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenbizikoa.-Ordenantza honetan jasotzen ez den orotan, toki entitate honek onetsitako Ordenantza fiskal orokorra eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aplikatuko dira.

Bigarrena.-Ordenantza fiskal honek bere testu osoa Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denean indarra hartu eta erabateko eragin juridikoa sortuko du.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Bakarra.-Indarrrik gabe utzi dira, baliorik ez eraginik ez dutela, ordenantza hau betetzeari kontra edo traba egiten dioten udal mailako lehenagoko xedapen guztiak.

TARIFEN ERASKINA

1.-Etxez etxeko eguneroko zaborbilketa, Elizondon: 5.500 pezeta urtean.

2.-Etxez etxeko zaborbilketa, udalerriko gainerako herrietan, Irurita kenduta, bi egunetik behin: 4.000 pezeta urtean.

- 3.-Etxez etxeko zaborbilketa, Iruritan bi egunetik behin: 5.000 pezeta urtean.
- 4.-Zaborbilketa botikesei, Baztan osoan: 7.000 pezeta urtean.
- 5.-Zaborbilketa arraindegien jabeei: 18.000 pezeta urtean.
- 6.-Zaborbilketa janari-denda, harategi eta fruta- denden jabeei: 13.000 pezeta urtean.
- 7.-Zaborbilketa, supermerkatuen jabeei, Baztan osoan: 45.000 pezeta urtean.
- 8.-Zaborbilketa, ostatu, jatetxe eta hotelei, Baztan osoan:
 1. kategoria: 45.000 pezeta urtean.
 2. kategoria: 22.500 pezeta urtean.
 Kategoria berezia: 11.250 pezeta urtean.
- 9.-Zaborbilketa ikastetxe eta klinikei: 45.000 pezeta urtean.
- Zaborbilketa, elkarte gastronomikoei: 12.500 pezeta urtean.

LURRETAN ZANGAK IREKITZEKO ETA EREMU PUBLIKOKO ZOLADURAN EDO ESPALOIETAN EDOZEIN MUGIMENDU EGITEKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUENA

1. artikulua. Ordenantza hau honako lege testuen babespean ezarri da: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 122. artikulua, urriaren 18ko 280/1990 Foru Dekretuaren bidez onartutako Nafarroako Toki Entitateen Ondasunei buruzko Erregelamenduko 93 artikulua, eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 28. artikulua eta hurrengoak.
2. art. Zergagaia baimendutako denboran egindako probetxamendu berezia da, erabilera publikoko lurretan zangak irekiz eta eremu publikoko zoladuran edo espaloietan edozein motatako mugimendua eginez.
3. art. 1. Jabari publikoa beren onerako erabili eta bereziki probertzen dutenak edo hartaz baliatzen direnak daude prezio publiko hau ordaintzera behartuak.
 2. Behar den baimena izan gabe egindako probetxamenduetan, probetxamenduen onura jasoko dutenak eta, egin, egiten dituztenak daude solidarioki ordaintzera behartuak.
4. art. Ordenantza honetako prezio publikoaren zenbatekoa finkatzeko, erreferentziatzat hartuko da probetxamendu horretan berritu edo altxatu behar den zoladura, galtzada edo espaloien, edo erabilera publikoaren azalera, beti ere ordenantza honen eraskinean xedatutakoarekin bat.
5. art. Zerbitzuen Mankomunitateak salbuetsiak daude ordaindu beharretik, beren lege araubide berezia dela- eta.
6. art. 1. Erabilera pribatiboak edo probetxamendu bereziak udal jabari publikoaren suntsiketa edo narriadura ekar dezaketenean, onuraduna aipatu horiek berreraiki edo konpontzeko gastuen kostua ordaintzera beharturik dago, bai eta aurretik zenbateko hori gordailutako uztera ere, dagokion prezio publikoa ordaindu beharra kendu gabe.

2. Kalteak konponezinak badira, suntsitutako ondasunek zenbat balio duten edo kaltetutakoen balio galera norainokoa den, horrenbertze emanen dio ordainetan toki entitateari.

Toki entitateak ez ditu inolaz ere barkatuko artikulu honek aipatzen dituen kalteordainak eta diru itzulerak.

7. art. Prezio publikoa ordaindu beharra sortzen da zangak irekitzeko baimena edo lizentzia ematen den unean edo zoladuran edo espaloietan mugimendua egiteko baimena ematen denean edo probetxamendua hasten denean behar den baimena izan gabe egiten bada. Hala ere, toki entitateak probetxamenduari dagokion zenbateko osoa edo horren zati bat eskatzen ahalko du aurretik.

8. art. Zangak egin edo zoladuran edo espaloietan mugimendua egin nahi duen pertsona natural edo juridikoak behar den baimena eskatuko dio toki entitateari, eta hirigintza arloko araudiaren betebeharrak bete beharko ditu, eta, kasuan-kasuan, baita "bilgailuak espaloietan barna sartzeko eta eremu publikoa erreserbatzeko ordenantzarenak" ere.

9. art. Lizentziak ematerakoan ordainarazpen honi dagozkion prezio publikoak likidatuko dira. Pasabidea egiteko denean, lizentziak indarra izanen du baldin eta espaloietan barna pasatzeko baimena lortu bada.

10. art. Baimenak indarra galduko du hura eman eta sei hilabetetan ez badira obrak hasi edo baimenaren xedapenean ezarritako epean bukatu ez badira.

11. art. Lizentzia eskatu dutenek obra egiteari uko egiten ahal diote behin lizentzia hartu ondoan eta iraungipen epea bukatu baino lehenago, beti ere lanak hasi ez badira.

Kasu horretan tasaren %90 itzuliko da; tasa ordaindu ez bada, haren %10 eskatuko zaio interesatuari.

12. art. Iruzurtzat hartuko da baimendua baino azalera edo luzera handiagoko probetxamendua egitea, baita obrak egiteko emandako denbora baino gehiago luzatzea ere.

Halaber, iruzurtzat hartuko da behar den lizentzia gabe probetxamendua edo obrak hastea.

13. art. Bertzelako arau-hausteei dagokienean eta zehapenekin ikustekoa duten afera orotan, Ordenantza fiskal orokorrean xedatutakoari jarraikiko zaio edo, bertzenaz, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/95 Foru Legeari eta horrekin bat heldu diren araei.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenbizikoa.-Ordenantza honetan jasotzen ez den orotan, Ordenantza fiskal orokorrean eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean xedatutakoa aplikatuko da.

Bigarrena.-Ordenantza honek bere testu osoa Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denean hartuko du indarra.

PREZIO PUBLIKOEN ERASKINA

Ordenantza honetan aplikatu beharreko tarifak ondokoak dira:

I. epigrafea.-Zangak irekitzea.

I.1.1.-Zola duten aldeetan: 500 pezeta metro lineal edo zatiki bakoitzeko.

I.1.2.-Zola eman gabeko aldeetan: 250 pezeta metro lineal edo zatiki bakoitzeko.

II. epigrafea.-Espaloietan zola mugitzea

II.1.-Garajeetako sarbideetan: 525 pezeta metro lineal edo zatiki bakoitzeko.

ORDENANTZA, UDALAREN KIROL INSTALAZIOAK ERABILTZEKO PREZIO PUBLIKOA ARAUTZEN DUENA

Oinarria

1. artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 29. artikuluari jarraikiz ezarri da ordenantza hau.

Zergagaia

2. art. Udalaren kirol instalazioak erabiltzearen ordain ezarri dira ordenantza honetan arautzen diren prezio publikoak.

Sujetu pasiboak

3. art. Kirol instalazioak egiazki erabili edo erabiltzen ahal dituzten pertsona fisiko edo juridikoak, eta elkarteak dira prezio publiko hauen sujetu pasiboak.

Karga-oinarriak

4. art. Karga-oinarriak dira:

a) Igerilekuak erabiltzeagatik: horiek irekiak dauden denboraldia, abonua baldin bada, eta haietara sartzea, sarrera baldin bada.

b) Pilotalekua erabiltzeagatik: zenbat ordutan erabiltzen den, haiexek.

c) Udal kiroldegia erabiltzeagatik: zenbat ordutan erabiltzen den, haiexek.

d) Argiak erabiltzeagatik: zenbat ordutan eta fasetan erabiltzen diren, haiexek.

e) Aldagelak eta dutxak: zenbat lagunek eta zenbat aldiz erabiltzen dituzten, haiexek.

f) Kirolez kanpoko jarduerengatik, jarduera eta egun bakoitzeko.

Tarifak

5. art. Aplikatu beharreko tarifak ordenantza honen eraskinean agertzen dira eta indarra izanen dute harik eta Udalak osoko bilkuran aldatu arte.

Tributu-kuota

6. art. Karga-oinarriari dagozkion tarifak aplikatuz aterako da kuota.

Salbuespenak eta hobariak

7. art. Ordenantza honetan aurreikusitako prezioen gainean ez da bertze salbuespenik ez hobaririk onartuko, udal erabakien gaineko legeetan espreski agertzen direnak baizik.

8. art. Inguruabar bereziak, xede soziala edo bertzelakoak direla eta erabili nahi badira, kasu horietan Udalak, egoki iduritzen bazaio, bidezko juzkatzen dituen hobariak ematen ahal ditu, eta horiek ematearekin batean zehaztuko du sujetu pasiboek zer baldintza bete beharko dituzten edo instalazioak nola erabili behar diren.

Inork, aitzinean xedatutakoa aplikatzen ahal bazaio, Udalaren bulegoetan hartzen ahalko du instalazioetara dohainik edo merkeago sartu ahal izateko kredentziala.

Prezioen sortzapena

9. art. Kirol instalazioen erabilpena baimentzen den unean izanen da prezio publikoen sortzapena. Haien ordainarazpena egiazki erabili baino lehen egingen da.

Kudeaketa arauak

10. art. Udalaren kirol instalazioetan erabilera eta jardueren arauetz aparte, ordenantza honetan aurreikusitako prezioen ordainarazpenak ondoko artikuluetako arauak izanen ditu.

11. art. Udalak, urteoro, "igerilekuetako denboraldia" delakoaren hasiera eta bukaera egunak zehaztuko ditu, baita kirol instalazioak urtaro bakoitzean ireki eta ixteko ordutegia ere.

12. art. Igerilekuetako instalazioak "abonu" bidez erabili nahi dituztenek Udalak urteoro zehazten duen maneran, tokian eta gainerakoetan eskuratuko dute.

13. art. Abonuak pertsonalak eta eskualdaezinak izanen dira, eta haien titularra ez den inork erabiltzen baditu, Udalak deuseztatuko ditu, ordaindutako dirua itzultzeko eskubiderik gabe.

14. art. Sarrerek instalazioetara behin bakarrik sartzeko balioko dute, eta ez gero sartu ahal izateko, egun berean izan arren.

15. art. Pilotalekuko eta kiroldegiko instalazioak noizean behinka erabili nahi dituztenek, kasuan kasuko instalazioen arduradunarengana joko dute, eta horrek bidezkoena erabakiko du, indarra duten arau eta jarraibideekin bat.

16. art. Udalak, nahi badu, kirol instalazioak erabiltzeko baimena emanen du kasuan-kasuan zehazten diren baldintzetan, ordutegietan eta gainerakoetan, eta bidezko juzkatzen dituen fidantzen gordailua eskatzen ahal du horrengatik.

Dirubilketa

17. art. "Abonu" bidez eginez gero, abonua bera eskuratzean egingen da kuoten dirubilketa, Udalak urteoro zehazten duen maneran eta tokian.

18. art. Kirol instalazioetan, eguneko sarrerei dagozkien kuoten dirubilketa Udalak horretarako izendatzen dituen langileek egingen dute eta bertara sartu baino lehen. Astean

behin, egiteko horri atxikitako langileek kontu emanen dute diruzaintzan, agintzen zaizkien xehetasunak eta guzti.

19. art. 16. artikuluan aipatu diren erabilerengatik, instalazioen ardura duen langileak eginen du dirubilketa, eta horrek, astean behin, kontu emanen du diruzaintzan, agintzen zaizkion xehetasunak eta guzti.

Arau-haustek eta zehapenak

20. art. Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Ordenantza fiskal orokorrean xedatutakoari jarraituko zaio.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenbizikoa.-Ordenantza honetan jasotzen ez den orotan, toki entitate honek onetsitako Ordenantza fiskal orokorra eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aplikatuko dira.

Bigarrena.-Ordenantza fiskal honek bere testu osoa Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denean indarra hartu eta erabateko eragin juridikoa sortuko du.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Bakarra.-Indarrik gabe utzi dira, baliorik ez eraginik ez dutela, ordenantza hau betetzeari kontra edo traba egiten dioten udal mailako lehenagoko xedapen guztiak.

TARIFEN ERASKINA

1. Igerilekuen erabilpena:

-Abonuak:

-Haurrak (4tik 7 urte bitarte): 1.500 pezeta erroldatuendako. 2.000 pezeta ez erroldatuendako.

-Gaztetxoak (8tik 15 urte bitarte): 4.000 pezeta erroldatuendako. 5.000 pezeta ez erroldatuendako.

-Helduak (16 urtetik goiti): 6.000 pezeta erroldatuendako. 7.500 pezeta ez erroldatuendako.

-Sarrerak:

-Haurrak (4tik 7 urte bitarte): 150 pezeta egunean.

-Gaztetxoak (8tik 15 urte bitarte): 400 pezeta egunean.

-Helduak (16 urtetik goiti): 650 pezeta egunean.

-Igerilekuak erabiltzeko abonuetan, %25eko hobaria eginen da familia ugariagatik.

-Taldeen 200 pezetako sarrera merketua ordainduko dute lagun eta egun bakoitzeko, igerilekuen arduradunak kasu bakoitzerako ematen duen ordutegiari jarraikiz sartuko dira instalazioetara.

2. Pilotalekuaren erabilpena:

-Argirik gabe: 500 pezeta ordu bakoitzeko.

-Argi erdia: 750 pezeta ordu bakoitzeko.

-Argi osoa: 1.200 pezeta ordu bakoitzeko.

2.1. Argi instalazioaren erabilpena: 400 pezeta ordu eta fase bakoitzeko.

2.2. Dutxen erabilpena: 200 pezeta aldi eta lagun bakoitzeko.

2.3. Telefonoen erabilpena: pauso kopurua, tarifa ofizialaren ariora.

3. Kiroldegiaren erabilpena:

-Argirik gabe: 1.000 pezeta ordu bakoitzeko.

-Argi eta guzti:

-Argi osoa: 1.600 pezeta ordu bakoitzeko.

-Argi erdia: 1.300 pezeta ordu bakoitzeko.

3.1. Kirol pistaren erabilpena:

-Argirik gabe: 500 pezeta ordu bakoitzeko.

-Argi eta guzti:

-Argi osoa: 900 pezeta ordu bakoitzeko.

-Argi erdia: 800 pezeta ordu bakoitzeko.

3.2. Aldagelen erabilpena:

-Bakar batendako: 300 pezeta ordu bakoitzeko.

-24 lagun bitarteko taldeendako: 2.500 pezeta ordu bakoitzeko.

-25etik 50 lagun bitarteko taldeendako: 3.500 pezeta ordu bakoitzeko.

3.3. Lehiaketak, ikusleek sarrerak ordaintzen dituztelarik.

-Horrelakoetan, kasuan kasuko epigrafeetan (1, 2, 3) agertzen den tarifaz landa, ondoko tarifei dagozkien kuotak ordainduko dira:

KUOTA FINKOA, HERRIKO PREZIOAREN ARIORA

Herriko prezioa

Sarrera kuota dohainik Errekargua 15 urtez goit.

14 urtez beheitikoendako sarrera ordaintzen badute

0-110 230 920

111-160 510 1.150

161-210 920 1.390

211-260 1.740 1.620
261-320 2.430 1.850
321-370 3.240 1.850
371-420 5.090 2.080
421-470 6.770 2.080
471-530 8.680 2.320
531-580 11.470 2.320
581-630 15.280 3.480
631-680 19.400 3.480
680 baino geh. 24.610 3.480

4.2. KUOTA ALDAKORRA TXARTEL-LEHIATILAKO DIRUBILKETAREN ARIORA DIRUBILKETA TARIFA

10.000 pezeta bitarte -

10.001-20.000 pezeta %10

20.001-30.000 pezeta %15

30.001-40.000 pezeta %20

40.001-50.000 pezeta %25

50.000etik aitzina %30

4. Kirolez kanpoko jarduerengatik eta ikuskizunengatik: 35.000 pezeta egun bakoitzeko.

ORDENANTZA, UR HORNIDURAREN PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUENA

Oinarria

1. artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 28. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren babesean ezarri da ordenantza hau.

Zergagaia

2. art. Edateko uraren hornidura zerbitzua erabilgarri izan nahiz benetan erabiltzea da zergagaia.

Salbuespenak

3. art. Ez da salbuespenik eginen ordainarazpen honi dagokionez.

Sujetu pasiboak

4. art. Pertsona fisiko edo juridikoak, baita, nortasun juridikorik ez izan arren, unitate ekonomikoa edo ondare banatua eratzen duten entitateak ere, izanen dira, zergadun diren aldetik, ordainarazpen honen sujetu pasiboak, baldin eta edateko uraren etxez

etxeko hornidura zerbitzua eta gisako bertze zerbitzuak eskatzen badituzte edo haietaz baliatzen badira.

Zergadunaren ordezkotzat hartuko dira higiezin jabeak, eta hauek, behar balitz, onuradunei erasaten ahalko dizkiete kuotak.

Karga-oinarriak

5. art. Zerbitzuaren tarifak kontzeptu hauengatik ordainduko dira:

a) Hornidura zerbitzua erabilgarri edukitzeagatik eta horren mantenimenduagatik: kuota finkoa paratutako kontagailuaren diametroaren ariora. Neurgailuak alokatzeko kostua barne izanen da.

b) Etxeko erabilpenetarako horniduragatik: kontsumitutako metro kubiko bakoitzagatik.

c) Industrian edo ureztapenean erabiltzeagatik: kontsumitutako metro kubiko bakoitzagatik.

d) Hartunea paratzeagatik: kuota finkoa eta behin bakarrik ordaintzekoa, hartunearen diametroaren ariora.

Tarifak

6. art. Aplikatu beharreko tarifak eraskinean agertzen dira eta indarra izanen dute harik eta Udalak osoko bilkuran aldatzea erabaki arte.

Likidatu beharreko kuota

7. art. Likidatu beharreko kuota aurreko artikuluko tarifak aplikatzearen emaitza izanen da, aipatzen diren kontzeptuen arabera.

Sortzapena

8. art. Prezio publikoa eta ordaindu beharra kontzeptu hauengatik sortzen da:

a) Zerbitzua erabilgarri izateagatik eta horren mantenimenduagatik, hornidura-sarera lotzen den unean.

b) Kontsumoagatik, hasten den une beretik.

c) Ur-hartunea paratzeagatik, ur hartunearen irekidura egin edo lizentzia edo baimena ematen den unean.

Kudeaketa arauak

9. art. Kontagailua erostearen gastuak eta hura paratzeko behar diren materialak eta eskulana sarera lotzea edo hornidura eskatzen duenari kobratuko zaizkio.

10. art. Prebentzio moduan, etxe edo instalazio barrenean ur-galera dakarten aberiak dituen hartunearen titularrari ur-hornidura mozten ahalko zaio.

11. art. Erabiltzaileak ezin du inondik ere bertze inor uraz hornitu, ez eta eskubidea ez duenari hartzen utzi ere. Gainera, galarazi beharko du bere axolagabekeriaz gertatzen ahal den iruzurra. Halakorik bada, erabiltzailea izanen da erantzule bakarra.

12. art. Erabiltzaileak behartuak daude ura banatzeko sare nagusiko aberia baten ondorioz gertatutakoak toki entitateari lehenbailehen jakinaraztera.

13. art. Erabiltzaileari dagokio kontagailua eta paso- giltza dauden tokia behar den bezala egon dadin zaintzea eta toki entitateak ematen dituen jarraibideak betetzea.

14. art. Ordenantza honetan aipatzen diren kontzeptuetako bat ordaindu beharra duten zergadunak behartuak daude kontagailua dagoen tokira sartzan uztera irakurketa egiten duen langile kreditatuari edo toki entitateko edozein langileri, baldin eta zerbitzuko beharreatatik edo bertze zerbitzuetatik zergadunaren etxera edo lokalera sartu beharrean badaude.

Dirubilketa

15. art. 1. 5. artikuluko a), b) eta c) ataletan aurreikusitako ordainarazpenak lauhilekoan behin ordainduko dira.

2. Artikulu bereko d) atalean aurreikusitako ordainarazpena sortzapenaren unean ordainduko du erabiltzaileak.

Arau-hauste eta zehapenak

16. art. Honako hauek iruzurtzat hartzen dira:

a) Toki entitateko langile behar bezala kreditatuek egiten dituzten bisitak oztopatzea.

b) Kontagailuen irakurketa edo ordenantza honetan araututako zerbitzuekin ikustekoa duten frogapenak galaraztea.

c) Toki entitateak ezarritako zigilu, zerraila edo aparatuak aldatzea.

d) Toki entitateak neurgailuak edo kontsumo-aparatuak aldatzeari buruz emandako jarraibideak ez betetzea.

e) Kontagailuaren irakurketa espreski aldatzeko asmoz baimenik gabeko mekanismoak erabiltzea.

17. art. Arau-hauste eta zehapenen gainerako alderdiei dagokienez Ordenantza fiskal orokorrean, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean eta horrekin bat heldu diren arauetan xedatutakoari lotuko zaio.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenbizikoa.-Ordenantza honetan jasotzen ez den orotan, toki entitate honek onetsitako Ordenantza fiskal orokorra eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aplikatuko dira.

Bigarrena.-Ordenantza honek bere testu osoa Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denean indarra hartu eta erabateko eragin juridikoa sortuko du.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Bakarra.-Indarrik gabe utzi dira, baliorik ez eraginik ez dutela, ordenantza hau betetzeari kontra edo traba egiten dioten udal mailako lehenagoko xedapen guztiak.

TARIFEN ERASKINA

- a) Zerbitzua erabilgarri edukitzeagatik eta horren mantenimenduagatik: 2.000 pezeta urtean.
- b) Etxeko erabilpenetarako horniduragatik: 20 pezeta, kontsumitutako metro kubiko bakoitzagatik.
- c) Industrian edo ureztapenean erabiltzeagatik: 25 pezeta, kontsumitutako metro kubiko bakoitzagatik.
- d) Hartunea paratzeagatik: 10.000 pezeta.

EREMU PUBLIKOKO ETA HERRILURRETAKO ZORU, HEGALKIN ETA ZORUPEKO PROBETXAMENDU BEREZIEN PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

1. artikulua. Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 122. artikuluan, Nafarroako Entitateen Ondasunei buruz urriaren 18ko 280/1990 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Erregelamenduaren 93. eta ondoko artikuluetan eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen 28. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoaren babesean ezarri da ordenantza hau.

2. art. 1. Eremu publikoko eta herrilurretako zoruan, hegalkinean eta zorupean ondoko probetxamendu edo erabilera pribatiboetarik edozein egitea da zergaia:

- 1.-Erabilera publikoko lurren zorupea okupatzea.
- 2.-Erabilera publikoko lurra salgai, material edo gisako muntaduren bidez okupatzea.
- 3.-Soto edo sotoarteei argia, aireztapena, pertsonen sarbidea edo gaien sarrera eman ahal izateko eremu publikoko zoladura edo espaloietan kokatutako lukana, arnasbide, ate, karga-aho edo gisako elementuak, bai eta argi-sare publikotik egindako hartunea ere.
- 4.-Eremu publikoaren gainean dauden edo fatxadaren lerrotik ateratzen diren markesina, olana edo gisako instalazioak, eraikinaren berezko egituraren elementuak ez direnean.
- 5.-Eremu publikoaren gainean edo haren hegalkinean kokatuta dauden burni-barra, aldamiu eta gisakoak, kableak, horma-besoak, lotura, banaketa edo erregistrorako kaxak, baskulak, salmenta automatikorako tresnak eta gisakoak.
- 6.-Irabazteko xedearekin mahaiak eta kadirak paratuz erabilera publikoko lurra okupatzea.
- 7.-Eremu publikoan kioskoak paratzea.
- 8.-Erabilera publikoko lurretan kokatutako postu, barraka, saltoki, ikuskizun eta jolaskizunak, kalez kaleko industriak eta zinema filmaketa.
- 9.-Erakusleiho eta beirarasak.
- 10.-Balkoi eta terrazak kristalez ixtea.

3. art. Ondoko hauek daude beharturik ordenantza honetan ezarritako prezio publikoak ordaintzera:

a) Udal lizentzia edo kontzesioen titularrak eta probetxamenduaren mozkinak jasotzen dituzten pertsona natural edo juridikoak.

b) Lizentziarik edo kontzesiorik gabe, ordenantza honen xede diren probetxamenduak egiten dituztenak.

c) Probetxamenduaz gehiago baliatu gabe ere toki entitatean haren baja aurkezten ez dutenak.

d) Eremu publikoan ezartzen diren edukiontzien kasuan, lizentziaren titularrak edo probetxamenduaz baliatzen direnak. Zergadunaren ordezkotzat edukiontzien jabeak eta etxegileak hartuko dira.

4. art. Ordenantza honetako prezio publikoaren zenbatekoa finkatzeko, probetxamenduaren iraupena eta ordenantza honetako xede diren probetxamendu bereziek okupatutako eremu publikoaren azalera hartuko da kontutan, honen eraskinean xedatzen denari jarraikiz.

5. art. Toki mailako zerbitzu publikoak ematen dituzten enpresak salbuetsirik egonen dira prezio publikoen ordainarazpenetik.

6. art. 1. Erabilera pribatiboak edo probetxamendu bereziak berekin badakar toki entitatearen jabari publikoaren suntsiketa edo narriadura, onuraduna aipatu horiek berreraiki edo konpontzeko gastuen kostua ordaintzera beharturik dago, bai eta aurretik zenbateko hori gordailutako uztera ere, deusetan ukatu gabe prezio publikoaren ordainketa.

2. Kalteak konponezinak badira, onuradunak desegindako ondasunek zenbait balio duten edo kaltetutako baliogalera norainokoa, horrenbertze emanen dio ordainetan toki entitateari.

Toki entitateak ez ditu inolaz ere barkatuko artikulu honek aipatzen dituen kalteordainak eta diru itzulerak.

7. art. Prezio publikoa ordaindu beharra probetxamendua onartzen denean sortzen da, edo probetxamendua hasten denetik, baimenik gabe hasi bada.

8. art. Udalak behar den lizentziarik edo kontzesiorik eman gabe probetxamendua hasten bada, behar den prezio publikoa pagatzeak ez ditu egindako probetxamenduak legeztatuko eta, beraz, kalteordainik eman gabe instalazioak kentzeko agindu daiteke.

9. art. 1. Ordenantza honetan araututako prezio publikoei lotutako probetxamenduek behar den errolda edo zentsua izanen dute ohikoak eta etengabeak badira.

2. Erabilera publikoko lurra, irabazi asmoz, mahai eta kadirekin okupatzeari dagokionez, Udalak baimena bere osotasunean balio gabe utzi edo aldi baterako ken dezake arrazoi bidezko, obra, konponketa, eta abarrik badago, eta kobratutako prezio publikoaren zati proportzionala itzultzera baizik ez da behartua egonen.

3. Balkoi eta terrazak kristalez ixteari dagokion prezio publikoaren sortzapena lizentzia ematen den unean izanen da.

10. art. 1. Iruzurtzat hartuko da behar den lizentziarik gabe probetxamendua edo erabilera hastea.

2. Bertzelako arau-hausteei dagokienean eta zehapenekin ikusteko duten afera orotan, Ordenantza fiskal orokorrak xedatutakoari jarraituko zaio. Toki entitateak, agindu bidez, lizentzia edo baimenik gabeko muntadurak eremu publikotik ken ditzake udal biltegiara eramateko, eta muntadura hori desmuntatu, garraiatu, biltegiara eraman eta egin behar den bertze edozergatik sortutako tasak eta gastuak jabearen kargu geldituko dira.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenbizikoa.-Ordenantza honetan aurreikusi ez den orotan, Ordenantza fiskal orokorrean eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean xedatutakoa aplikatuko da.

Bigarrena.-Ordenantza honek indarra hartu eta erabateko eragin juridikoa sortuko du bere testu osoa Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denean, eta Estatuko edo Foru Komunitateko administrazioak toki entitateei beren egintza edo erabakiak deuseztatzeko errekerimendu ahalmena erabiltzeko epea iragandakoan.

ZENBATEKOEN ERASKINA

I. epigrafea.-Probetxamendu bereziak zoru gainean.

I.1.-Mahaiak: 1.200 pezeta urtean.

I.2.-Kadirak: 600 pezeta urtean.

I.3.-Merkatu ttikiak, azoka ttikiak, metro lineal edo zatiki bakoitzeko: 500 pezeta egunean.

Zenbateko hori %100 handitzen ahal da bestetan edo ferietan.

I.4.-Bertzelako probetxamenduak, metro karratu edo zatiki bakoitzeko.

-Egunean: 60 pezeta.

-Hilabetean: 1.200 pezeta.

-Urtean: 11.700 pezeta.

I.5.-Aldamioak: aitzineko epigrafeko zenbatekoen %50.

Halako alde batean, urbanizazioa egiten ari badira, zenbatekoak %75 ttipituko dira.

II. epigrafea.-Probetxamendu bereziak hegalkinean

II.1.-Probetxamendu bereziak hegalkinean:

-Metro karratu edo zatiki bakoitzeko, egunean: 30 pezeta.

-Metro karratu edo zatiki bakoitzeko, hilabetean: 580 pezeta.

-Metro karratu edo zatiki bakoitzeko, urtean: 5.810 pezeta.

III. epigrafea.-Probetxamendu bereziak zorupean.

-Muntatutako tanga bakoitzeko, urtean:

5.000 litro bitarte: 3.000 pezeta.

5.001etik 10.000 litro bitarte: 4.300 pezeta.

10.001etik 15.000 litro bitarte: 5.300 pezeta.

-Gainerako probetxamendua, m² edo zatiki bakoitzeko:

-Egunean: 20 pezeta.

-Hilabetean: 310 pezeta.

-Urtean: 3.100 pezeta.

ORDENANTZA, IBILGAILUAK ESPALOIETAN BARNA SARTZEKO ETA EREMU PUBLIKOA APARKALEKU ESKLUSIBORAKO EDO EDOZEIN MOTATAKO SALGAIEN ZAMALANETARAKO ERRESERBATZEKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUENA

1. artikulua. Ordenantza hau honako lege testuen babespean ezarri da: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 122. artikulua, urriaren 18ko 280/1990 Foru Dekretuaren bidez onartutako Nafarroako Toki Entitateen Ondasunei buruzko Erregelamenduko 93-96 artikulua, eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 28. artikulua eta hurrengoak.

2. art. Zergaia eremu publiko edo erabilera publikoko lurretan honako probetxamendu hauek egitea da:

a) Erabilera pribatuko eraikin eta orubeetan 2 gurpil edo gehiagoko ibilgailu eta guriendako sarrera edo pasabidea, sestra aldaketa eginez nahiz gabe.

b) Enpresek edo partikularrek eskaturik, salgaien zamalanak egiteko erabilera publikoko bide eta lurretan lekua erreserbatzea.

c) Erakunde edo norbanakoentzat ibilgailuak aparkatzeko lekua erreserbatzea erabilera publikoko bide eta lurretan.

3. art. Ordaintzera beharturik daude:

a) Udal lizentzien titular diren pertsona natural edo juridikoak.

b) Ibilgailuendako sarrera eta pasabideak zer eraikinetan ezarri diren, haien jabeak.

c) Ordenantza honen 2. artikuluko b) eta c) ataletan emandako probetxamenduen onuradun diren erakunde edo norbanakoak.

4. art. Ordenantza honen prezio publikoaren zenbatekoa finkatzeko erreferentziazat hartuko da ordenantzan aipatzen diren probetxamendu bereziak egiteko beharrezkoa den espaloien edota eremu publikoaren erreserbaren azalera, eranskinean xedatutakoarekin bat.

5. art. Halako pertsona, entitate publiko edo pribatu batzuk ez dira behartuak egonen prezio publiko hauek ordaintzera baldin eta Udalbatzak, osoko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, deklaritzen badu horiek eskaintzen dituzten zerbitzuak mesedegarriak direla komunitatearentzat.

6. art. 1. Erabilera pribatiboak edo probetxamendu bereziak udal jabari publikoaren suntsiketa edo narriadura ekar dezaketenean, onuraduna aipatu horiek berreraiki edo konpontzeko gastuen kostua ordaintzera beharturik dago, bai eta aurretik zenbateko hori gordailutako uztera ere, dagokion prezio publikoa ordaindu beharra kendu gabe.

2. Kalteak konponezinak badira, suntsitutako ondasunek zenbat balio duten edo kaltetutakoen baliogalera norainokoa den, horrenbertze emanen dio ordainetan toki entitateari.

Toki entitateak ez ditu inolaz ere barkatuko artikulu honek aipatzen dituen kalteordainak eta diru itzulerak.

7. art. Prezio publikoa ordaindu beharra probetxamendua ematen denean sortzen da, edo probetxamendua hasten denetik, baimenik gabe hasten bada.

Hala ere, toki entitateak probetxamenduari dagokion zenbateko osoa edo horren zati bat eskatzen ahalko du aurretik.

8. art. 1. Espaloian barna ibilgailuak sartu ahal izateko obrak egin behar eta horien ondorioz zoladuran mugimendu egin beharra baldin badago, aldi berean pasabidea egiteko lizentzia eskatuko da eta "Erabilera publikoko lurretan zangak irekitzeko eta eremu publikoko zoladuran edo espaloietan edozein mugimendu egiteko prezio publikoak arautzen dituen ordenantzan" ezarritako prezio publikoak ordainduko dira.

2. Pasabidearen lizentzia emateko baldintzak izanen dira, horren ondorioei dagokienez, pasatzeko baimena izatea, prezio publikoak ordaintzea eta gordailuaren sarrera egitea.

3. Indarra duen arautegia edo lizentziaren baldintzak ez betetzeagatik ezartzen diren zehapenak ordaintzeko xedea ematen ahal zaio gordailuari.

9. art. Lizentziaren titularrak probetxamendua bukatu eta gero zentsuan baja ematera beharturik daude eta, behar izanez gero, Udalak utzitako diskoak itzultzera eta espaloia eta zintarria zeuden bezalaxe uztera. Horrela egiten ez bada, probetxamenduak segida duela ulertuko da harik eta espaloiak eta espaloi-ertza zeuden bezala utzi eta diskoak itzuli arte.

10. art. Halako egoitza edo leku batean pasabide lizentziarik gabe probetxamendu hori egiten badute, Udalaren Ikuskaritza Zerbitzuek eta Udaltzaingoak horren berri emanen diote beti ere Udalari.

11. art. Iruzurtzat hartuko da behar den baimenik eskatu gabe probetxamendua egitea.

12. art. Gainerako arau-hausteei dagokienez eta zehapenekin ikustekoa duten afera orotan, Ordenantza Fiskal Orokorrean xedatutakoari jarraikiko zaio edo, bidezko denean,

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/95 Foru Legeari eta horrekin bat heldu diren araei.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenbizikoa.-Ordenantza honetan jasotzen ez den orotan, Ordenantza Fiskal Orokorrean eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean xedatutakoa aplikatuko da.

Bigarrena.-Ordenantza honek bere testu osoa Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denean indarra hartu eta erabateko eragin juridikoa sortuko du.

PREZIO PUBLIKOEN ERASKINA

Ordenantza honetan aplikatu beharreko zenbatekoak hauek dira:

I epigrafea.-Ibilgailuen sarbidea: 3.000 pezeta metro lineal eta urte bakoitzeko.

II. epigrafea.-Lekua erreserbatzea: egun argiko ordutegian, 9,00etatik 21,00etara: 3.000 pezeta metro lineal eta urte bakoitzeko.

ORDENANTZA, HILTEGIA ETA BASKULA ERABILTZEKO PREZIO PUBLIKO ARAUTZEN DUENA

Oinarria

1. artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren babesean ezarri da ordenantza honen prezio publikoa.

Zergagaia

2. art. Hiltegiko egoitza eta instalazioak eta Udalaren baskula erabili eta probetxatzea eta haiei dagozkien zerbitzuak erabiltzea, horra zergagaia.

Zerga ordaindu beharra

3. art. Zerbitzua erabiltzen den unetik sortzen da ordaindu beharra.

Sujetu pasiboa

4. art. Pertsona fisikoak nahiz juridikoak izanen dira prezio publiko hauen sujetu pasiboak, baldin eta Udal hiltegian hiltzen diren animalien jabeak badira, edo baskula erabiltzen badute, edo, jabeak izan gabe ere, edozein arrazoiengatik instalazioak erabiltzen badituzte edo bertako berezko jarduerekin ikusteko duten zerbitzuak egiten bazaizkie.

Karga-oinarriak

5. art. Prezio ezberdinen karga-oinarriak:

a) Hiltegia erabiltzeko prezio publikoaren kasuan: zenbateko finkoa, hildako aziendaren kilogramo bakoitzeko eta espezieen ariora.

b) Baskula publikoa erabiltzeko prezio publikoaren kasuan: zenbateko finkoa pisatutako aziendaburu bakoitzeko eta espezieen ariora.

c) Bertzelako erabileretarako eta bertako berezko jarduerekin ikusteko duten zerbitzuak egiteko: behar denean erabakitzen diren moduloei jarraikiz.

Tarifak

6. art. Aplikatu beharreko tarifak eraskinean agertzen dira eta indarra izanen dute harik eta Udalak osoko bilkuran aldatzea erabaki arte.

Tributu-kuota

7. art. Karga-oinarriari behar den tarifa aplikatuta ateratzen da tributu-kuota.

Prezio publikoen sortzapena

8. art. Zerbitzuak erabiltzen direnean sortzen dira prezio publikoak.

Kudeaketa arauak

9. art. Hiltegia eta Udalaren baskula usatu eta erabiltzeko arauengatik ere, berorietan egiten diren zerbitzuak erabiltzeagatik, prezio publikoen ordainarazpenak honako arau hauek izanen ditu.

10. art. Udalaren hiltegitik bertan hildako aziendak eraman baino lehen, zerbitzuaren esleipen hartzaileek sujetu pasibo bakoitzaren espezie bakoitzeko abere hilak pisatu eta zenbatuko ditu, eta horren frogagiria eginen du, bikoizturik eta sinaturik, eta horietako ale bat hildako edo pisatutako abereen jabe edo ordezkariari emanen, frogagiri horiek izanen baitira dagokion ordainarazpenaren oinarri.

Bertan hildako animalia guztien haragiak, kanpora eraman baino lehen, eguraste eta hozte kamaretatik pasatu behar du.

11. art. Astean behin, egunero hildako animalien banan-banako zerrenda, espezieen ariora sailkatua, igorriko zaio Udalari, eta bertan zehaztuko da bakoitzaren pisua, jabea eta bakoitzari albaitariak egin dion ikuskapenaren zenbatekoa.

12. art. Instalazioak animaliak hiltzeko ez baizik eta bertze xedeetarako eta antzeko zerbitzuak egiteko erabiltzeko prezio publikoen ordainarazpenari dagozkion kudeaketa arauak, beraiek arautzen edo ezartzen diren unean emanen dira, ordenantza honetako 4. artikulua c atalari jarraikiz.

Dirubilketa

13. art. Ordenantza honetan aurreikusitako tasak aplikatuz ateratzen diren zorrak, hildako abereen kilo kopuruak zehaztuz jakinaraziko zaizkie sujetu pasiboiei. Horiek hilabeteko epean ordaindu beharko dira jakinarazpen egunetik hasirik, eta sujetu pasiboek, ordenantza fiskal orokorrean xedatutakoari jarraikiz, beren zorrak helbideratzen ahal dituzte banku edo aurrezki entitateetan.

14. art. Ordaintzeko borondatezko aldiak iraganik, zergadunen bat baldin bada bi zor edo gehiago dituenik ordenantza honetan araututako prezio publikoengatik, zerbitzuen ordain pagatu beharreko prezio publikoak direnez, Udalak, aldez aurretik behar den erabakia

hartuta, hiltegiko instalazioak erabiltzeko desgaitzen ahal ditu, baita zerbitzuak ematek gelditu ere, aitzineko artikuluan ezarritakoa deusetan ukatu gabe.

Zergadun horiek zor zituzten prezio publikoak ordaindu eta gero, hiltegiko instalazioak erabili nahi badituzte, Udalak erabakitzen ahal du, aldez aurreko baldintza gisa, nahi duen fidantza eskatzea. Zer epetan eta zenbat ordaindu behar duten, kasuan-kasuan zehaztuko da.

Arau-haustekak eta zehapenak

15. art. Arau-hausteei eta haien zehapenei dagokien orotan, ordenantza fiskal orokorrari jarraituko zaio.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenbizikoa.-Ordenantza honetan jasotzen ez den orotan, toki entitate honek onetsitako Ordenantza fiskal orokorra eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aplikatuko dira.

Bigarrena.-Ordenantza fiskal honek bere testu osoa Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denean indarra hartu eta erabateko eragin juridikoa sortuko du.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Bakarra.-Indarrik gabe utzi dira, baliorik ez eraginik ez dutela, ordenantza hau betetzeari kontra edo traba egiten dioten udal mailako lehenagoko xedapen guztiak.

TARIFEN ERASKINA

1.-Udalaren hiltegian aziendak hiltzea

a) Behi azienda: 28,50 pezeta/Kg. gehi BEZa.

b) Ardi azienda: 52,50 pezeta/Kg. gehi BEZa.

c) Zerri azienda: 20,50 pezeta/Kg. gehi BEZa.

a) Behor azienda: 27,50 pezeta/Kg. gehi BEZa.

(Prezio horiei 8,50 pezeta/Kg. gehitu behar zaie, garraioagatik).

2.-Aziendak Udalaren baskulan pisatzea

a) Behi eta zaldi azienda: 400 pezeta buruko, gehi BEZa.

b) Zerri azienda: 175 pezeta buruko, gehi BEZa.

UDALAREN MUSIKA ESKOLAREN PREZIO PUBLIKOA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Oinarria

1. artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren babesean ezarri da ordenantza honen prezio publikoa.

Zergagaia

2. art. Ematen diren ikastaroetan parte hartzea da.

Zerga ordaindu beharra

3. art. Bakoitzak bere ikastaroko matrikula gauzatzen duenean sortzen da ordaindu beharra, gero hartara agertu ala ez.

Sujetu pasiboa

4. art. Ematen diren ikastaroetan parte hartzeko asmoz izena ematen dutenek dute ordaindu behar.

Tarifak

5. art. Aplikatu beharreko tarifak eraskinean daude eta indarra izanen dute harik eta Udalak osoko bilkuran aldatu arte.

Salbuespenak eta hobariak

6. art. Udalaren gizarte zerbitzuek aztertuko dituzte Udalaren Musika Eskolako ikasleak, familia ugarikoak badira eta haien dirusarrerak, famili unitate bakoitzeko, lanbide arteko gutxieneko soldata halako hiru baino gehiago ez badira pertsona fisikoen gaineko errentaren aitopenen ariora.

Dirubilketa

7. art. Tarifak, osoak izan ala merketuak izan, haien ordainketa bi epetan egiten ahal da: lehenbizikoa, matrikula gauzatzean, eta bigarrena, eskolako hirugarren hiruhilekoa hasi aitzin.

Udalaren Musika Eskolan matrikula gauzatutakoan, ikasleak dagokion tarifaren %50 baizik ez du ordaindu beharko, matrikula otsailaren 1a baino lehenago deuseztatzen badu.

Aldiz, ikasleak Udalaren Musika Eskolako matrikula urtarrilaren 31tik aitzina deuseztatzen badu, tarifa osoa ordaindu beharko du.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenbizikoa.-Ordenantza honetan jasotzen ez den orotan, toki entitate honek onetsitako Ordenantza fiskal orokorra eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aplikatuko dira.

Bigarrena.-Ordenantza fiskal honek bere testu osoa Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denean indarra hartu eta erabateko eragin juridikoa sortuko du.

TARIFEN ERASKINA

Izena emateko eskubideak: Musika Eskola edo Kontzertatorioan ezarritakoak, ikasle libre eta ofizialek kasuan-kasuan izena emateko.

IKASGAIA

Solfeoa, prestakuntzakoa. 1.a, 2.a eta 3.a.

Arrunta: 3.325 pezeta hilabetean.

Familia ugaria: 2.325 pezeta hilabetean.

Baztango bizilagunak ez diren ikasleak: 8.100 pezeta hilabetean.

Solfeoa, 4.a, eta 5.a.

Arrunta: 4.675 pezeta hilabetean.

Familia ugaria: 3.275 pezeta hilabetean.

Baztango bizilagunak ez diren ikasleak: 9.450 pezeta hilabetean.

Abesbatza, 1.a, eta 2.a.

Arrunta: 1.975 pezeta hilabetean.

Familia ugaria: 1.350 pezeta hilabetean.

Baztango bizilagunak ez diren ikasleak: 6.750 pezeta hilabetean.

Musika-tresnen oinarrizko maila: tronpeta, saxoa eta klarineta (prestakuntzakoa, 3.erako), bibolina eta pianoa (prestakuntzakoa, 4.erako), akordeoia (hasierakoa, 1.rako).

Arrunta: 3.325 pezeta hilabetean.

Familia ugaria: 2.325 pezeta hilabetean.

Baztango bizilagunak ez diren ikasleak: 8.100 pezeta hilabetean.

Erdiko maila: armoniako 1.a, pianoko 5.a, klarineteko 4.a, akordeoiko 2.a.

Arrunta: 4.675 pezeta hilabetean.

Familia ugaria: 3.275 pezeta hilabetean.

Baztango bizilagunak ez diren ikasleak: 9.450 pezeta hilabetean.

ORDENANTZA, EREMU PUBLIKOKO ETA HERRILURRETAKO ZORUAN,
HEGALKINEAN ETA ZORUPEAN HERRITAR GUZTIEI EDO UGARIRI ERAGITEN
DIETEN HORNIDUREN ZERBITZU PUBLIKOEN ENPRESA USTIATZAILEEK EGITEN
DITUZTEN PROBETXAMENDU BEREZIEN PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUENA

Oinarria

1. artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 29. artikuluari jarraikiz ezarri da ordenantza hau.

Zergagaia

2. art. Eremu publikoko eta herrilurretako zoruan, hegalkinean eta zorupean herritar guztiei edo ugariri eragiten dieten horniduren zerbitzu publikoen enpresa ustiatzaileek egiten dituzten probetxamendu bereziak, horra zergagaia.

3. art. Prezio publiko hau ordaintzeko beharra sortzen da horniduren zerbitzu publikoen enpresa ustiatzaileek zorua, hegalkina eta zorupea okupatzen dituztenean honako

hauetako zerbaitekin: kableak, hodiak, kanalizazioak, biltontziak, arketa eraldagarriak, zutoinak, palomilak, banaketa edo erregistro kutxak eta zerbitzu egitearekin ikusteko duten gainerako probetxamenduak.

Sujetu pasiboa

4. art. 1. Eremu publikoko edo herrilurretako zorua, hegalkina eta zorupea horniduren zerbitzu publikoak ustiatzeko erabiltzen dituzten enpresek dituzte prezio publiko hauek ordaindu behar.

2. Telefónica de España, S.A.k, bere tributu araubidea ezarri zuen abenduaren 29ko 11/1987 Foru Legean ezarritakoari jarraikiz ordainduko ditu prezio publikoak, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen hirugarren xedapen gehigarriaren bidez sartu zen aldaketarekin.

Zerga-oinarria eta tarifak

5. art. Udal mugape bakoitzean urtean erdiesten duten fakturaziotik heldu diren dirusarrera gordinen %1,5 da prezio publikoen zenbatekoa, beti ere eta salbuespenik gabe.

Kudeaketa arauak

6. art. 1. Sujetu pasiboek, bihileko natural bakoitza izapidatu ondoko hileko lehen hamabostaldiaren barrenean, ulertzeko moduko aitorpena egin beharko dute aurreko lauhilekoan eskuratutako dirusarrera gordinez eta udal mugapean egindako horniduren bolumenaz, baita horiek Udalari epe horretan egindako horniduraren bolumenaz eta indarra duten tarifen ariora igorpendutako edo igorpendu zitekeen fakturazioaz ere.

2. Udalak egoki juzkatzen dituen egokieretan eskatzen ahalko du aitorpenean adieraztea hornidura eman dieten erabiltzaile edo bezeroen izenak, bakoitzari egindakoa zehaztuz.

7. art. Aitorpena aurkeztearekin batean, enpresek haren ondoriozko prezio publikoaren zenbatekoa ordaindu beharko dute.

8. art. 1. Horrela egindako likidazioak behin- behinekoak izanen dira, harik eta Udalak, bidezko juzkatzen dituen ikuskapen, kontsulta eta aholkularitzen ondotik, behin betikotzat jotzen dituen arte.

2. Udalak ohartarazpenik egin ez badu, likidatutako kuotak aitorpena aurkeztu eta bortz urtera bilakatuko dira behin betikoak.

9. art. Sujetu pasiboek ez diote trabarik paratzen ahal Udal ikuskatzailetzak zerga-oinarria zehaztu nahi eta kontabilitate liburuen frogapena egin nahi badu edo berdin beharrezko izan edo komenigarri jotzen dituen gainerako agiri, euskarri magnetiko edo bertzelakoena.

Arau-haustea eta zehapenak

10. art. Udal mugapeko urteko fakturaziotik heldu diren dirusarrera gordinen aitorpen faltsua aurkeztea arau-hauste larritzat joko da.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenbizikoa.-Ordenantza honetan jasotzen ez den orotan, toki entitate honek onetsitako Ordenantza fiskal orokorra eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aplikatuko dira.

Bigarrena.-Ordenantza fiskal honek bere testu osoa Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denean indarra hartu eta erabateko eragin juridikoa sortuko du.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Bakarra.-Indarrrik gabe utzi dira, baliorik ez eraginik ez dutela, ordenantza hau betetzeari kontra edo traba egiten dioten udal mailako lehenagoko xedapen guztiak.

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA EMATEKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA

Oinarria

1. artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 29. artikuluan ezarritakoari jarraikiz ezarri da ordenantza honen prezio publikoa.

Kontzeptua

2. art. Etxez etxeko laguntza zerbitzua gizarte zerbitzu publikoa da. Zerbitzu emate hori balioanizta da, koordinatua, profesionalen eskuetan dago eta alde aurreko plangintza baten ondorioz sortua.

Onuradunaren etxebizitzan zenbait lan egitean gauzatzen da eta hori prestatutako profesionalak egiten dute, begiraleen zuzendaritzapean, eta inguruko egoerarengatik beren ohiko bizilekuan eguneroko lanak ezin egin dituzten pertsonen zein famili taldeei sortzen zaizkien beharretan laguntzeko daude.

Behar dutenen ongizate maila ezarri, zaindu eta areagotzea da bere helburua. Horretarako aurreikusitako, hezi, lagundu eta birgaitu egin behar da eta egoera bakoitzaren arduraren garaiz hartu, konponezina bilakatu baino lehen.

EELZaren oinarritzko eginbeharrak, beraz, ondoko hauek dira:

- a) Familiak eta bakoitzak dituen gaitasun eta trebeziak ahalik eta gehien hobetzea, norberak bere ohiko bizilekuan, ahal den neurrian, bere kabuz moldatzeko modua izan dezan.
- b) Laguntza sare naturalengandik ahalik eta lankidetzarik handiena erdieste, bereziki elkarbizitzako arazoetan familiaren arduraren lortzea, eta lanak egiteko eta gizarte laguntzari dagokionean, berriz, borondateko langileena.
- c) Pertsonak ohiko bizilekuan edukitzeko lan egiten duten profesionalen sareen balio eta eragin handiena lortzea.

Abiapuntuak

3. art. Lehenbiziko abiapuntua autonomia da. Ez da egin behar bakoitzak bere kabuz egin dezakeena, gainerakoan, pertsona horrek gero eta handiagoa izan luke ezgaitasuna. Bestalde, EELZak ez du familiaren zainketa ordezkatzeko, osatu egiten du.

Abiapuntu horiekin batera, bertze batzuk hartu behar dira kontutan, alegia, pertsonak merezi duen begirunea, bakar egotea, onartzea eta norberak bere bizia gobernatzeko duen eskubidea.

Helburuak

4. art. Honako hauek izanen dira zerbitzuaren helburuak:

-Bere kabuz konpontzeko arazoak dituzten pertsona eta familiek beren ohiko ingurutik ez aldentzea.

-Pertsonak eta familiek autonomia mailarik altuena lortzea.

-Familiarekin bizitzeko inguru osasuntsua lortzea eta inguruarekin, berriz, harreman baikorrak.

-Aurretik lan egitea, behar ez denean jendea instituzioetan ez sartzeko.

-Onuradunen familiei laguntza, kemena eta orientabideak ematea, eta, behar denean, haren lana osatzea.

-Onuradunak dituen oztopoengatik sortzen diren ezintasun egoerak aurreikustea.

Eman beharreko zerbitzuak

5. artikulua.

5.1. Gizarte lana: gizarte lanaren bidez eskatzailearen biziaren alderdi guztiak hartzen dira: familia, ekonomia eta gizarteak, eta, zehazki:

a) Eskatzaileari buruzko ikerketa sozio-ekonomikoa, eta familiakoa.

b) Dauden eskubide eta baliabideei buruzko informazioa eta horiek lortzeko erraztasunak ematea.

c) Erabiltzailea zaintzeko familiak duen erantzukizunaren alde eragitea.

d) Baliabide ekonomikoak, familiarenak eta gizartearenak, erabiltzearen alde eragitea.

e) Zainketa psiko-soziala eta laguntza psikologikoa.

f) Zailak direlako edo ezgaitasun mailak uzten ez diolako, erabiltzaileak bere kabuz ezin egin dituen kudeaketak egitea.

5.2. Osasun lana: eskualdeko Oinarrizko Osasun Laguntzako Taldearekin elkarlanean egingen da. Honako lan hauek hartuko ditu:

a) Laguntzaile lana: eria egonera aldatzea, agindutako botikak kontrolatu eta ematea, ibilaldi motzak egiten laguntzea, etab. Bertzalde, medikuaren kontsultategira laguntzea, errezetak eskatu eta biltzea etab.

b) Norberaren garbiketa: bainualdiak, eskuak eta zangoak txukuntzea, ilea garbitzea, jazkien forma eta garbitasuna zaintzea, ohatzearen garbiketa.

c) Osasun heziketa.

Salbuetsirik geldituko dira familiako langileen espezializazioa behar duten osasun lanak, osasun profesionalei baitagozkie.

5.3. Etxeko lana:

a) Etxebizitzaren garbiketa. Ez dagokio erabiltzen ez diren etxeko zatiak garbitzea (beheitiak, trastetegiak, etab.) ez eta ohiz kanpoko garbiketa orokorrak ere.

b) Arropa garbitu, konpondu eta lisatzea.

c) Erosketak egitea.

d) Janariak prestatzea edo horretan laguntza ematea.

5.4. Norberari dagokionean:

Norberaren txukuntasun eta garbiketa.

Etxean mugitzeko laguntza ematea.

Etxebizitzan laguntza teknikoa eta egokitzapenerako laguntza ematea.

Medikuengana laguntzea.

Errezeta eta agiriak kudeatzea.

Elkarbizitzako ekintzetara laguntzea.

5.5. Gizarte, heziketa eta kulturari dagozkion zerbitzuak: behar den neurrian, komunitatean dauden kultura eta solaserako baliabideak (zaharretxea, liburutegia, bidaiak) erabiltzearen alde eragitea eta horiek eskuratzeko erraztasunak ematea.

Behar bezalako ohitura eta arauak betetzen ikastea (elikadura, garbiketa, osasuna, etxeko ekonomia, etxebizitzaren administrazioa, eskolatzea, etab.)

6. art. Zerbitzuak, horien orduak eta maiztasuna bezala, bakoitzari aldiro sortzen zaizkion egoeren arabera emanen dira eta egoera aldaketekin batera horiek ere aldatzen ahalko dira.

7. art. Egoera guztietan zerbitzu ematea behin- behinekoa izanen da, autonomia eta burujabetasun maila jakin baten mesedetan.

8. art. Autonomia aferak dituen pertsona oro izan daiteke E.E.L.Z.ren onuradun.

9. art. Honako hauek aginduko dute erabiltzaileak hautatzerakoan:

-Bakoitzak bere buruaz baliatzeko duen maila.

-Familiar zaintzen duen norbait izatea edo ez izatea eta, izanez gero, ematen dion zainketa.

-Elkarbizitza unitatearen ondasun eta baliabide ekonomikoak.

-Noiz bildu zen eskabidea.

10. art. Urtero Gizarte Ongizateko Batzordeak tasa jakin batzuk ezarriko dizkie E.E.L.Z.ren onuradunei, eskatzailearen dirusarreraren eta elkarbizitza unitatearen arabera.

Langileak

11. art. Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren oinarritzko langileak honako hauek izanen dira: gizarte langilea, famili langilea eta administrari laguntzailea.

12. art. Gizarte Ongizateko Batzordeak urtero erabakiko du zenbat izanen diren etxez etxeko laguntza zerbitzuko langileak, eskualdean sumatzen diren beharren arabera izanen baita.

Funtzionamendua

13 art. Egoera bakoitzaren balorazio eta jarraipena Oinarritzko Osasun Laguntzako Taldearekin elkarlanean egingen da.

14. art. Eskabide guztiak baloratu eta gero, Oinarritzko Osasun Laguntzako Taldeak eta E.E.L.Z.aren gizarte langileak onestearen aldeko edo kontrako proposamena egingen diote Gizarte Ongizateko Batzordeari eta azken horrek zati batean edo osoan berretsiko du.

15. art. Onuradunak eta E.E.L.Z.ko gizarte langileak elkarrekin erabakiko dituzte zainketa zerbitzuen orduak eta maiztasuna. Lehenbizikoak edozein aldaketaren berri izanen du.

16. art. E.E.L.Z.ak, ongi aritzeko, profesional talde baten lana behar du eta, aldizka, informazio eta jarraipeneko bilkurak, eskainitako laguntza onuradun bakoitzaren behararekin uneoro bat etor dadin.

17. art. Ondoko hauek izanen dira gizarte langilearen eginbeharrak:

- a) Zaindu beharreko egoerak hauteman, ikertu eta baloratzea.
 - b) Zainketa proposamena: edukia, orduak, maiztasuna eta eman beharreko zerbitzuaren iraupena.
 - c) Zainketa programa begiratzea.
 - d) Kasu bakoitzaren bilakaerari jarraitzea, onuraduna aldizka ikusiz eta famili langileekin koordinatuz.
 - e) Egiten diren erreklamazioak bildu, ikertu eta erantzutea.
 - f) Urtero txostena egin eta zerbitzuaren funtzionamendua aztertzea.
 - g) 5. artikuluko 1. puntuan adierazten diren eginbehar guztiak.
18. art. Ondoko hauek izanen dira famili langilearen betebeharrak:
- a) Onuradunen zuzeneko zainketa.
 - b) Zainketa programa egitea.
 - c) Taldeko lankideak jakinaren gainean edukitzea erabiltzaile bakoitzaren egoerari eta gertatutako aldaketei dagokienean.
 - d) Gizarte langilearekin koordinazioan egotea.
 - e) Erabiltzaile bakoitzari ematen zaion zainketaren aldaketak proposatzea.

f) 5.3, 5.4 eta 5.5 puntuetan adierazitako eginbeharrak.

19. art. Ondoko hauek izanen dira administrari laguntzailearen eginbeharrak:

- a) Erabiltzaileen dokumentazio eta istorioen kontrola eta jarraipena.
- b) Zerbitzuko kasuen administrazio lana.
- c) Erabiltzaileei egiten zaizkien banku bidezko kobrantzen kontrola.

20. art. Honako arrazoi hauek ekarriko dute etxez etxeko laguntza zerbitzutik kanporatua izatea:

- a) Erabiltzaileak tasa ez ordaintzea.
- b) Zerbitzua emateko arrazoiaren jatorria desagertzea.
- c) Zainketa behar zuen familia unitateko kidearen heriotza.
- d) Zainketa behar duena bertze etxe edo zentro batera eramatea.
- e) Erabiltzaileak horrelaxe nahi izanez gero.

21. art. Egoera baloratzeko aurkeztu behar diren agiriak honako hauek dira:

- a) Eskabidea.
- b) N.A.N.aren fotokopia.
- c) Norberaren osasun txartelaren fotokopia.
- d) Eskatzaileak urte horretan izan dituen dirusarrerak eta elkarbizitza unitatean zenbat diren egiaztatzen dituen agiria.
- e) Eskatzaileak aitzineko urtean aurkeztu zuen errenta aitortpenaren fotokopia eta elkarbizitza unitatean aurkezteko behartuta daudenena.
- f) Erroldatze ziurtagiria.
- g) Elkarbizitza agiria.
- h) Katastroko ziurtagiria.
- i) Pagamenduak helbideratzeko baimena.

Finantzaketa

22. art. E.E.L.Z.aren funtzionamendu gastuak honako hauek ordainduko dituzte:

Nafarroako Gobernuak, oinarrizko gizarte zerbitzuen programak finantzatzeko dirulaguntzaren bidez, urtero erabakitzen den portzentaiarekin.

Gizarte Zerbitzuen Udalarteko Batzordea. Udal bakoitzak hartuko du parte E.E.L.Z.aren finantzaketan, bi Udalek elkarrekin egindako hitzarmenari jarraikiz.

Erabiltzaileak, ordaintzen dituzten tasen bitartez, beti ere, elkarbizitza unitatearen per capita dirusarrerak kontutan izanik.

23. art. Ekitaldi bakoitzaren hasieran eta Gizarte Ongizateko Batzordeak proposaturik, Udal bakoitzak, bere aurrekontuetan E.E.L.Z.aren mantenimendurako azaltzen den dirukopurua emanen du. Ekitaldia burututakoan, dagokion txostena aurkeztu eta gastuen balantzea eginen da.

24. art. Gizarte Ongizateko Batzordeak proposatutakoan, Udalak urtero tasak onartuko ditu.

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN ESKABIDEA

Izen-deiturak:

Sortze eguna eta tokia:

Bizilekua

Karrika:

Zenbakia: Solairua:

N.A.N.

Adierazten du:

Bere egoera edota familiarena dela eta, eskatzen duela Elizondoko Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoko Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuak bere kasuaren gaineko ardura hartzea.

Deklaratzen du:

Onartuko duela:

-Gizarte langilea bere etxebizitzan, etxez etxeko laguntza ematen aritzen den profesionala denez gero.

-Proposatzen zaizkion orduak eta egunak, Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoak eta biak elkarrekin erabakitako aldaketekin.

Eskatzen du:

Gizarte zerbitzu gisa, etxez etxeko laguntza eman dakiola eta horretarako behar diren egiaztatgiri guztiak aurkeztu ditu.

ORDENANTZA FISKALA, UDALAREN ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUEN PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUENA

Hasierako onespena

1. Ordenantza hau Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren babesean sortu da, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua behar dutenak zaintzeko tasak arautzeko.

Zergagaia

2. Zergagaia etxez etxeko zainketa zerbitzuaren erabiltzaileei zainketa hori, gizarte zerbitzu oinarrizkoen esparruan, ematea izanen da.

Sujetu pasiboa

3. Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren erabiltzaileak dagozkien tasak ordaintzera behartuta egonen dira.

Karga oinarriak

4. Zerbitzuaren iraupenak erabakiko ditu karga oinarriak, baita famili unitatearen dirusarrerak ere.

Prezio publikoak

5A. Prezio publikoak kalkulatzeko kontutan hartuko dira famili unitatearen urteko dirusarrerak.

5B. Honako iturri hauetik etorritakoak dirusarreratzat hartuko dira: lana, langabezia, pentsioak, higikorren eta higiezinaren errentak.

5C. Kontzeptu guzti horiengatik eskabidea egin aurreko urteari dagozkion dirusarrerak hamalau hilabetekoetan banatuko dira.

Emitza famili unitatearen kideen artean banatu ondoren, biderkatu egingen da bider 1 koma elkarbizitzako unitatean dirusarrerak dituzten lagun bakoitzeko dezima bat.

5D. Lanbidearteko gutxieneko soldataren zenbatekoa izanen da tasak aplikatzeko oinarria.

Horri jarraikiz, ondoko baremoa ezarri da:

- 1.-Laguntza pentsioa adinako edo guttiagoko dirusarrerak: salbue- tsiak.
- 2.-Laguntza pentsiotik L.G.S.aren %60 bitarteko dirusarrerak: 70 pezeta orduko.
- 3.-LGSaren %60tik %75era bitartekoak: 100 pezeta orduko.
- 4.-LGSaren %75etik %90era bitartekoak: 150 pezeta orduko.
- 5.-LGSaren %90etik %105era bitartekoak: 175 pezeta orduko.
- 6.-LGSaren %105etik %120ra bitartekoak: 200 pezeta orduko.
- 7.-LGSaren %120tik %135era: 300 pezeta orduko.
- 8.-LGSaren %135etik %150era: 400 pezeta orduko.
- 9.-LGSaren %150etik %165era: 500 pezeta orduko.
- 10.-LGSaren %165etik %180ra: 600 pezeta orduko.
- 11.-%180tik aitzina: 700 pezeta orduko.

Prezio publikoen sortzapena

6. Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuaren laguntza jasotzerakoan sortuko dira prezio publikoak.

7. Hileko prezio publikoa kalkulatzeko, 20 laneguneko hilak hartuko dira kontutan eta horiei dagokienez tarifa bakarra kobratuko da.

Erabiltzailea kanpoan bada, hileko prezio publikoa bakarrik aldatuko da laguntza jarraituko borts egun baino gehiagotan baldin bada kanpoan.

8. Tasa horiek hilabetero ordainduko dira, zerbitzua ematen hasi eta hurrengo hilaren lehenengo borts egunetan, likidazioa egin eta gero.

9. Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoari baje berri eman beharko zaio eta, hori noiz egiten den kontutan harturik, hau da, hilaren 15aren aitzinetik edo ondotik, 15ean edo 30ean izanen dituzte bere ondorio ekonomikoak.

Salbuespenak

10. Laguntza pentsiotik beheitiko dirusarrerak dituzten erabiltzaile guztiak salbuetsirik daude. Prezio publikoaren prestazioa ez da inoiz prestazioaren egiazko kostua baino gehiago izanen.

Kudeaketa arauak

11. Zerbitzuaren prestazioez baliatu ahal izateko, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan eskabidea aurkeztu behar da, ondoko agiriekin batera:

-N.A.N.aren fotokopia.

-Norberaren osasun txartelaren fotokopia.

-Txosten medikoa.

-Azken errenta aitorenaren fotokopia, hura egitera behartuta dauden famili unitateko kide guztiena.

-Erroldatze, bizikidetasun eta katastro ziurtagiria.

-Famili unitateko kide guztien etekinen banketxeetako agiriak.

-Famili unitateko kide guztien nomina, pentsio eta gainerako dirusarreraren agiriak.

-Ordainketak helbideratzeko eskabidea.

-Eskatzen ahal diren bertze batzuk.

Eskatzaileek kontratu bat egin beharko dute, bertan ezarriz etxez etxeko laguntza zerbitzuaren orduen kopurua, haien kostua eta iraupena.

Arau-haustek eta zehapenak

12. Iruurreko arau-haustetzat hartuko da, tarifa txikiagoa izateko asmoz ez aurkeztea edota aurkezten diren agiri edo aitorenak faltsutzea, baita ez jakinaraztea ere tarifen kalkulua egiteko kontutan hartu behar diren dirusarrerak handitu direla.

13. Egiten diren arau-haustek, Nafarroako Toki Ogasunen Erregelamenduan ezarritakoaren arabera zehatuko dira, eta zerbitzua erabiltzen duenari baja ere ematen ahal zaio horiengatik.

Etkez etxeko laguntza zerbitzua ematetik gelditzea

14. Honako arrazoiengatik geldi daiteke:

-Prestazioaren sorrera eragin zuen arrazoia desagertzea.

-Etkez etxeko zerbitzurako kontratatu zen epea ahitzea, eta haren luzapen edo berritzerik ez gertatzea.

-Erabiltzailearen heriotza.

-Erabiltzaileari ezarritako tasa ez ordaintzea.

-Laguntza jasotzen zuen pertsona zentro espezializatu batera edo Mankomunitateko lurraldetik bertze bizileku batera eramatea.

-Erabiltzaileak bere borondatez eskatutako baja.

Iragarkiaren kodea: A9707156